# MEMORIA



# 2020
# 2021

**Datuak Babesteko**
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
**Protección de Datos**

# MEMORIA



# 2020
# 2021

Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa - Agencia Vasca de Protección de Datos
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

**MEMORIA 2020-2021**
**ISSN: 2253-9506**
Aldizkakotasuna: urtero

**LG: VI 312-2006**

**Lan hau Creative Commons da**

**Aitorpena (by)**

**Aske zara:**

- lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

**Baldintza hauetan:**

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesa duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

***Informazio gehiago:*** ***http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es***

**AURKIBIDEA** **ORRIALDEA**

1. AURKEZPENA .... 5

2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA .... 7

3. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA .... 8
3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENEKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA .... 9
3.2. IRIZPENAK .... 9
3.3. TXOSTENAK .... 21
3.4. BILERAK .... 22

4. KONTROL-JARDUERA .... 23
4.1. ESKUBIDEEN BABESA .... 24
4.2. SALAKETAK .... 37
4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK .... 45
4.4. EPAIAK .... 57

5. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA .... 58

6. DBEB-KO LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA .... 59
6.1. 2020. URTEA .... 59
6.2. 2021. URTEA .... 59

7. BARNE KUDEAKETA .... 61
7.1. EGITURA ETA LANGILERIA .... 61
7.2. 2020KO ETA 2021EKO AURREKONTUAK .... 62
7.3. BALIABIDE MATERIALAK .... 65
7.4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA .... 66
7.5. KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA .... 67

8. AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK .... 68
8.1. 2020. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK .... 68
8.2. 2020. KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK .... 68
8.3. 2021. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK .... 69
8.4. 2021. KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK .... 70

9. BARNE-KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK .... 71
9.1. LANGILERIAREN BANAKETARI BURUZKO DATUAK - 2020/2021 .... 71
9.2. AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK - 2020 .... 71
9.3. AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK - 2021 .... 76

# 1. AURKEZPENA

Urteko memoria egin eta onartzeko eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko arrazoia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legeak Bulegoari eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 59. artikuluak gainontzeko kontrol-agintaritzei ere ezartzen dien berariazko agindua betetzea. Era berean, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak xedatzen duenez, modu bat da Bulegoak 2020an eta 2021ean egindako jardueren berri emateko modu sistematizatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei eta administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrenean ziurtatzeko pertsona guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarrizko eskubidea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egiten duen urteko memorian jasotzen dira Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jarduera garrantzitsuenak; eta lan hori guztia hainbat ataletan islatuta dago bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean zehar egindako jarduera guztien segida.

Aurten lehenengo aldiz biltzen dira bi ekitaldi memoria bakar batean. COVID-19ak eragindako osasun-, ekonomia- eta giza-krisiak bete-betean ukitu du DBEBren jarduera; izan ere, administrazio publikoek birusaren hedapena kontrolatzeko hartutako neurrien indarrez, askotan datu pertsonal ugariren tratamenduak egin behar izan dira. Tratamendu horiek egin direnean DBEBk arreta berezia jarri du, arlo juridikoan efektibotasun eta segurtasun osoz egin daitezen, eta herritarren oinarrizko eskubideak bete daitezen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontsulta- eta aholkularitza-lanak gora egin du. Jarduera horren ardatza, batik bat, oreka bermatzea izan da, alde batean COVID-19a kudeatzeko beharrezko neurriak eta, bestean pertsonen pribatutasunaren errespetua egon direla, batez ere osasunari buruzko datuak edo geolokalizazio-datuak tratatzen direnean, hain bereziki zaindu beharrekoak izanik. Horrez gain kontuan hartu behar dira herritarrek beraiek, euren eskubidea defendatzeko, kontrol-agintaritza honi egin dizkioten eskariak.

Gainera, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) eta DPBEDBLOren babespean egindako datu pertsonalen tratamendu batzuei eta besteei buruz egin dizkioten kontsulta guztiak ebazten jarraitu du Bulegoak 2020an. Berriro ere, sarrien egin diren kontsultak datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duten oinarriei buruzkoak izan dira, eta Bulegoak bere irizpenetan berretsi egin du DBEOn jasotako printzipioak errespetatu behar direla.

2020ko eta 2021eko memorian jaso ditugu Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jarduerarik garrantzitsuenak. Lan hori guztia hainbat ataletan agertzen da bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean egindako jarduera guztien segida.

Bi ekitaldi hauetan eta, berriro ere, osasun-krisiaren egoerarengatik, birusari eusteko neurrien arabera egokitu behar izan ditugu gure zabalkunde- eta prestakuntza-jarduerak, DBEOk aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz

eta pribatutasuna euskal administrazio publikoen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrizanari buruz.

Azkenik, esan nahi dugu 2020ko eta 2021eko memoriak jaso duen Bulegoaren lan guztia, bai aholkularitza-eginkizuna betetzeko egindakoa bai kontrol-agintaritza den aldetik egindakoa, aurten ere, asmo garrantzitsu batekin egin dela, hau da, benetako oreka lortzea datuak babesteko oinarrizko eskubidea eta hori bezain garrantzitsuak diren beste eskubide batzuk egikaritzean; kontuan izan behar da, gainera, gurea teknologia-arloan gizarte aurreratua dela eta guztiz konektatuta dagoela, eta maiz jartzen duela atezuan eskubideen arteko oreka.

Espero dugu 2020ko eta 2021eko memorian irakurleei eman diegun informazioa egokia izatea bakoitzak ikusteko zenbateraino lortu den –Bulegoa sortzeko legeak ezartzen duenaren arabera– Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren helburuak gauzatzea, ikusteko noraino bete duen zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzea eta ea osorik egokitu zaien Europar Batasuneko xedapenek kontrol-agintaritzentzat ezartzen dituzten jarduera-esparruei.

2023ko ekaina

Margarita Uria Etxebarria

Zuzendaria

## 2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

## 3. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA

Azken bi urteak bereziki latzak izan dira guztiontzat. Urte horiek COVID-19a izan dute ezaugarri nabarmen, eta osasun-krisiak, giza-krisi ere izan den horrek behartuta, Administrazio Publikoek zenbait neurri hartu dituzte; horren ondorioz, datu pertsonal ugari tratatu behar izan dira. Horregatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren etengabeko ardura beti izan da, eta hala da gaur egun ere, ekimen horiek egikaritzean pertsonen eskubideak errespetatzea, eta zehatzago esatearren pribatutasunerako eskubidea.

Pandemia honen aurkako borrokak behartuta, Osasun Administrazioek neurri batzuk hartu dituzte birusari aurre egiteko eta birusaren hedapena saihesteko nahiz eraginak arintzeko. Bulegoaren lana, berriz, alde batetik COVID-19aren derrigorrezko kudeaketa eta bestetik pertsonen pribatutasuna bateragarri egitea izan da, batez ere bereziki babestutako datuak tratatzen direnean, adibidez osasunari buruzkoak edo geolokalizazioko datuak. Horren haritik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak iritzia eman du Osasun Sailak diseinatutako «COVID-19.eus» izeneko tresnari buruz, eta tresna hori ezartzeko lege-oinarriak eta baldintzak aztertu ditu (CN20-005). Halaber, irizpena eman du, diagnostikoko zentro pribatuek Osasun Administrazioari COVID-19an positibo izan diren pazienteen identifikazio-datuak komunikatzeari buruz (CN20-006), eta horrez gain COVID-19aren kasuak eta kontaktuak arakatze aldera Osasun Sailari Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleen osasun-datuak lagatzeari buruz ere bai (CN20-013).

Osasun-krisi larri izateaz gain gizarte- eta ekonomia-krisi ere den horrek kalte egin die ahulenak diren taldeei, horien artean adinekoei. Horiek askotan konfinatuta eta bakarrik bizi dira, eta zenbait Udalek Bulegoari jarraibideak eskatu dizkiote haiei laguntzeko eta, bide batez, haien eskubideak babesteko.

Administrazio guztiak, zein bere eskumenen barruan, pandemiaren aurka borrokatzeko eta eraginak arintzen saiatzeko buru-belarri aritu dira; halaber, agerian geratu da gizarte osoak eta, orokorrean, herritarrek nolako elkartasun eta lankidetzaz jokatu duten birusari aurre egiteko; hala gertatu da euskal udalerri askotan pandemiak sortutako isolamendu-egoeran beharrik handiena jasan duten pertsonei lagundu dieten boluntarioekin.

Krisi horrek gizarte osoa probatu du. Errotik aldarazi digu elkarrekin harremanetan aritzeko modua, baina lan egiteko eta ikasteko modua ere bai; horrek behartuta, neurriak hartu behar izan dira, osasun-larrialdiko egoera honetan beste eskubide batzuk ere bermatzeko, hezkuntza jasotzeko eskubidea edo lan egiteko eskubidea kasu.

Pandemiak umeei ere eragin die modu berezian; izan ere, euren etxeetan egon dira denbora luzean, eta prestakuntza ez-presentziala jaso dute, hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko ordezko modu gisa. Bulegoari hainbat auzi azaldu zaio, besteak beste eskolak grabatzea eta grabazio horiek gerora hedatzea, tenperatura neurtzea, online azterketak eta ebaluazio-probetako segurtasun-neurriak, COVID-19an positibo diren ikasleen konfidentzialtasuna eta abar. Eskola-erkidegoaren barruan sortutako kontsulta horiek eta beste asko artatu ditu Bulegoak, Administrazioen nahiz herritarren eskura jarri dituen kanalen bitartez.

Krisi hau kudeatzean datuak tratatzeari buruz azaldu dizkioten zalantzei erantzuteko ahalegina egin du Bulegoak, eta egin dituen proposamenetako batzuk

atseginez onartu dira. Esku hartu duen guztietan, Bulegoak berretsi du bermeak sendotu behar direla, pertsonen eskubideak –bereziki pribatutasunerako eskubidea– pandemian eta alarma-egoeran ezereztuta gera ez daitezen. Bulegoaren lana, funtsean, pandemiaren aurkako borrokan derrigor egin beharreko jardueran botere publikoei laguntzea izan da, botere horiek pertsonen pribatutasunerako eskubidea alferrik uki ez dezaten edo, ukituz gero, ondorioak zuzen ditzaten. Horrez gain kontuan hartu behar dira herritarrek beraiek, euren eskubidea defendatzeko, kontrol-agintaritza honi egin dizkioten eskariak. Bulegoaren web-orrian argitaratuta daude sarrien egindako galderak.

Gainera, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren eta 3/2018 Legearen babespean egindako datu pertsonalen tratamendu batzuei eta besteei buruz egin dizkioten kontsulta guztiak ebazten jarraitu du Bulegoak azken bi urte hauetan. Berriro ere, sarrien egin diren kontsultak datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duten oinarriei buruzkoak izan dira, eta Bulegoak bere irizpenetan berretsi egin du Erregelamendu Orokorrean jasotako printzipioak errespetatu behar direla.

## 3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENEKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta Administrazio Publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den instituzioa izan nahi du; horretarako, hainbat komunikazio-kanal jarri ditu horien guztien esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea uki dezakeen edozein gairen gainean galdetzeko.

Bi urte hauetan, Bulegoak bere komunikazio-kanal guztiak irekita eduki ditu eta ehunka aholkularitza-eskabide artatu ditu, funtsean telefono bidez eta bide telematikoak erabiliz.

2020an eta 2021ean Administrazioentzat auzirik kezkagarrienak pandemiaren eta haren eraginen kudeaketarekin lotuta egon dira. Nabarmentzekoa da, halaber, datu pertsonalen arloko prestakuntza eskatu dela eta Euskal Administrazio Publikoetako datuak babesteko ordezkariek kontsulta ugari egin dituztela, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa aplikatzeari buruz. Kontsulta horietan agerian geratu denez, ordezkari horien lana funtsezkoa da, Administrazioek lan egokia egin dezaten eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete dezaten, euren eginkizun eta ahalak egikaritzean datuen tratamendu egokia bermatuz.

Bestalde, herritarrentzat bereziki kezkagarria da beren datu pertsonalen komunikazioa eta hedapena, baita beren osasunari buruzko datuen tratamendua ere. Gora egin du aholkularitza- eta laguntza-eskabideen kopuruak ere, datuetara irispidea izateko eta datuak ezerezteko eskubideak behar bezala erabiltzeko.

## 3.2. IRIZPENAK

DBEBk irizpen bidez ebazten ditu datuen babesari buruz jasotzen dituen galderarik konplexuenak. Bulegoak aholkularitza eginkizuna burutzen du otsailaren 25eko

2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua betetze aldera, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- kontsultaren gaiak 2/2004 legearen aplikazio-eremuan dauden Administrazio eta Instituzio Publikoen ardurapeko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa izan behar du.
- planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburu den tratamenduaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2020an eta 2021ean udalek eta foru-aldundiek egin zituzten kontsulta gehienak.




Kontsulten artean aipagarrienak dira Administrazio Publikoek egindako tratamenduak legitimatzen dituzten oinarriei buruzkoak. Oinarririk ohikoena da tratamendua beharrezkoa izatea lege izaerako arau batek ezarritako eginkizun bat betetzeko interes publiko baten indarrez [Erregelamendu Orokorraren 6.1 e) artikulua] edo lege-betebehar baten indarrez [Erregelamenduaren 6.1 c) artikulua]. Adostasuna [6.1 a) artikulua] ezingo da erabili datu-tratamenduaren oinarri juridiko moduan, tratamendu-arduraduna den administrazioaren eta interesdunaren arteko egoeretan orekarik ez badago; eta administrazioek ezin izango dituzte legitimatu tratamenduak interes legitimoaren izenean; kontuan hartu beharko dute, ordea, hirugarrenek interes legitimoa aipatzen duten [6.1 f) artikulua].

Edonola ere, Administrazio Publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduek Erregelamendu Orokorraren printzipioak bete beharko dituzte, esate baterako, datuen minimizazioarena [5.1c) artikulua] eta gardentasunarena [5.1 a) artikulua].

### 3.2.1. Irizpenak

Irizpen adierazgarrienak eskuragarri daude Bulegoaren web-orrian (www.avpd.eus).

- **Diziplina-prozeduretan datu pertsonalen tratamendua egitea (CN19-014)**

Diziplina-prozeduretan dagoen informazioa eskuratu ahalko dute prozedura izapidetzeko eta ebazteko ardura duten pertsonek, eta erakundean organo horiei euskarria eta administrazio-arloko laguntza eman behar dieten langileek ere bai, datu horien tratamendua legez agindutako eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa den heinean.

- **Zerbitzu-parteak ohol ofizialetan argitaratzea (CN19-013)**

Polizia-zerbitzu batek prest dauden langileen izenak bere iragarki-oholean argitaratzeak datuak babesteko araudia betetzen du, lana behar bezala egitearekin lotuta dagoelako eta, zalantzarik gabe, zerbitzua antolatzeko interesekoa delako. Hala ere, egongo ez diren langileen izenekin batera absentziaren arrazoiak argitaratzea zuzenbidearen arabera ez litzateke egokia izango, bereziki babestutako datuak edo arau-hauste penal edo administratiboen datuak ukitu ahal direlako.

- **Informazioa ematea Udaleko langileen datu biometrikoak biltzean (CN19-015)**

Udal bateko funtzionarioen hatz-markak biltzea datu-kategoria bereziei eragiten dien datu-tratamendua da, hatz-marka datu biometrikoa delako; tratamendu horrek Erregelamenduan aldarrikatzen diren printzipioak errespetatu behar ditu, eta kasu honetan bereziki garrantzitsua da gardentasunaren printzipioa, zeinaren arabera arduradunak informazioa «laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran eta hizkera argia eta erraza erabilita» eman behar baitu. Informazio hori idatziz edo beste bitarteko batzuen bidez eskuratuko da, eta ahoz ere eman ahal izango da.

Gainera, gaur egun datu biometrikoak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9. artikuluan azaltzen diren kategoria berezietan sartzen direla kontuan hartuta, arduradunek halako datuen tratamendua egin aurretik aztertu beharko lukete tratamendu hori egitea neurrizkoa al den, lortu nahi den helburua kontuan hartuta, eta interesdunei informazioa eman beharko liekete.

- **Bi gurasoetako batek adingabeko baten gizarte-zerbitzuetako espediente bat eskuratzea (CN20-001)**

Bananduta dauden gurasoek adingabearen guraso-ahala daukate eta zaintza eta jagoletza konpartitzen dituzte; udal espediente batean beraien informazioa nahiz euren seme adingabearena agertzen da eta informazio hori eskuratu ahalko dute, Kode Zibilak ematen dien legezko ordezkaritzarako ahalmenaren arabera, baldin eta haien eta seme-alabaren artean interes-gatazkarik ez badago.

Adingabearen espedientean beste gurasoari buruz agertzen den informazio pertsonalerako irispidea izatea justifikatuta egongo da baldin eta adingabearen interes gorena betetzea xede bada. Hala izan ezean, informazio horretarako irispidea mugatu beharko da.

Adingabearen interes gorenaren oinarrizko printzipioa bete behar du udalak, adingabearen espedientearekin lotuta egiten dituen jarduketa guztietan, eta interes horrek aipa daitekeen beste edozein eskubideren gainetik egon behar du.

- **Zinegotzien ondasun eta eskubideen eta bateraezintasun-arrazoien aitorpenetara irispidea izatea (CN20-003)**

Toki-ordezkarien ondasun eta jarduerei buruzko urteroko aitorpenak publikotasun aktiboko betebeharraren mendean daude. Hala ere, datuak minimizatzearen

printzipioa betetzeko (Erregelamendu Orokorraren 5.1 c) artikulua), bidegabeko aberasteen zantzuak edo ebidentziak daudela ikusteko bidea ematen duen datuak soilik argitaratu beharko dira.

Tokiko araudiak eta autonomia-erkidegoko araudiak ez dute erantzunik ematen aitorpen horiei buruzko informazioa zenbatean gorde behar den jakiteko. Beraz, kontserbazio-epea mugatzearen printzipioaren arabera (Erregelamendu Orokorraren 5.1e) artikulua), epe hori egokitu beharko litzateke ustelkeriarekin lotutako arau-hausteen preskripzio-epeen arabera.

- **COVID-19an positibo gisa diagnostikatutako pazienteen datuak komunikatzea (CN20-006)**

Apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoak eta urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak, Osasun Publikoari buruzkoak, eta lege horiek garatzeko estatuko nahiz autonomia-erkidegoko araudiak, nahikoa lege-gaikuntza ematen dute diagnostikoko zentro pribatuek Osasun Sailari COVID-19an positibo izan diren pazienteen identifikazio-datuak komunikatzeko.

Osasun-arloko araudiak legitimitatea emango luke datu horiek Osasun Sailak Osakidetzari komunikatzeko, eta gero pazienteen historia klinikoan sartzeko, neurrizko eta beharrezko neurria den aldetik pandemiari eusteko eta osasun publikoa laguntzaren eremuaren aldetik zaintzeko.

- **Adingabeen usteltzeagatiko kondena-epaiak hedatzea (CN20-004)**

Foru Aldundiak Bulegoari galdetu dio ea adingabeekin zerikusia duten enplegu, lanbide edo ogibideetan aritzeko debekua dakarten zigorrei buruzko epaiak adingabeekin lan egin ohi duten Foru Aldundiko zerbitzu eta erakunde autonomo guztietako arduradunei komunikatzea egokia al den datuak babesteko araudiaren arabera.

Ordenamendu juridikoak bereziki babesten ditu arau-hauste penalei buruzko datuak eta, ondorioz, halako datuak ezin dira orokorrean zabaldu zerikusia duten zerbitzuen artean. Nahi den xedea lortzeko, arau-hauslearen identifikazio-datuen tratamendua egin ahalko da, eta datu horiena soilik.

Nolanahi ere, Foru Administrazioaren edo erakunde autonomoaren mendeko langileen erregistroetan langileen kondenak agertu beharko dira, haien eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoak diren datuekin. Hala, Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan agertzen den minimizazioaren printzipioa eta 3/2018 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen gehigarriko baldintzak beteko dira.

- **«Covid-19.eus» aplikazio informatikoa (CN20-005)**

Osasun Sailak herritarren esku jarri du telefono mugikorretarako «COVID-19.eus» aplikazioa, zeinaren helburua baita HERRITARREN SAREA sortzea koronabirusari eusten laguntzeko eta, hala, gaixotasunaren prebentzioan, detekzioan eta jarraipenean laguntzeko.

Borondatezkoa eta doakoa den app horren zerbitzuak erabiltzeko ezinbesteko baldintza da erabiltzaile gisa erregistratuta egotea eta identifikaziorako datu pertsonal batzuk ematea, baita osasunari buruzko datuak eta ezaugarri pertsonalak ere. Gainera, app-aren funtzioetako bat da anonimizatuta dauden GPS lokalizazioko datuak erabiltzea, helburua dela erabiltzailea non ibili den detektatzea, epidemiaren transmisio-bektore bat ezarri ahal izateko.

Osasun Administrazioak, aplikazioaren arduradunak, informazioa pribatua dela eta datu pertsonalen tratamendua eraentzen duten printzipioak errespetatzen direla bermatu beharko du. Hain zuzen ere, printzipio horiek dira zilegitasuna, helburua mugatzea, gardentasuna, minimizazioa, zehaztasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna, datuen kontserbazio-epe mugatuak eta erantzukizun proaktiboaren printzipioa (diseinutik abiatutako eta lehenetsitako datu-babesa).

Erregelamendu Orokorrak eta 3/2018 Lege Organikoak, eta horiekin batera osasun-arloko araudiak, lege-babes nahikoa ematen dute Osasun Administrazioak osasunari buruzko datuen tratamenduak egin ditzan, COVID-19aren hedapenaren aurka borrokatzeko eta osasun publikoa zaintzeko.

COVID-19.eus app-ari esker erabiltzaileak hurbileko pertsonekin (familia, lagunak, lankideak) dauzkan harremanen zirkuluak sor daitezke, funtsean urruntze fisikoak daukan garrantziari buruz ohartarazteko, kutsatzea saihestea helburu dela; hala, zirkuluko pertsona bat kutsatzen bada, lehen mailako kontaktuak bakartu egingo lirateke. Tratamendu horietarako legitimitatea ematen duen oinarri juridikoa interesdunen adostasuna izango litzateke, baldin eta adostasun hori Erregelamendu Orokorraren eskakizunen arabera ematen bada.

Arau orokor gisa, lokalizazio-datuak erabiltzaileen aurretiazko adostasunarekin soilik tratatu ahalko dira, eta borondate-adierazpen horrek askea, zalantzarik gabea, zehatza eta arrazoitua izan beharko du. Hala, egintza positibo argi bat eginez, interesdunak datu pertsonal horiek tratatzea onartzen du. Gainera, interesdunak eskubidea izango du bere adostasuna edozein unetan kentzeko.

Nolanahi ere, ahal dela, datuen babesaren oinarrizko bermeak sakonki erasotzen dituen neurririk ez da hartuko, hala eginez gero Europar Batasunak ezarritako babes-estandarren aurka egiten baita.

- **Kontzejuen batzarrak grabatzea (CN20-008)**

Aztertzen da ea Arabako Kontzejuetako auzotarren batzarrak grabatzean egindako datu-tratamendua oinarrizko eskubidearekin bat datorren. Bulegoaren ustez tratamendu horretarako oinarri juridikoa dago, urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren 18.1 artikuluan jasotzen da oinarri hori, eta horren arabera kide anitzeko organoen bilerak grabatu ahal dira.

- **Udalaren osoko bilkuraren bileretan egon direnek bileren audio-grabazioetara irispidea izatea (CN20-009)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea udalak osoko bilkuraren bilera batean egon direnei nahitaez eman behar dien bilera horren audio-grabazio osoa,

hala eskatuz gero, eta horrez gain, ea onartutako osoko bilkuren aktak besterik gabe argitaratuz udalak gardentasuna betetzen duen.

Datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik, datuetara irispidea izateko eskubidea Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 13. artikuluan arautzen da, eta irispidea izateko eskubide hori titularraren datu pertsonalen gainean soil-soilik egikaritu behar da. Bileretan egon direnek beren datu pertsonaletara, udalaren osoko bilkuraren bileren audio-atzipen edo -grabaketaren bidez tratatu diren horietara irispidea izateko eskubidea egikaritu ahal dute, baina ez dute irispiderik izango hirugarrenen datu pertsonaletara.

Baina kontsultan, benetan, planteatzen da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan arautzen den hori. Eskubide hori datuak babesteko araudian arautzen denaz bestelakoa da, eta horri dagokionez 19/2013 Legearen 14. artikuluko mugak errespetatu behar dira, eta datuak babesteko oinarrizko eskubidea ere bai, Lege horren 15. artikuluaren arabera. Eta eskubide hori bermatzeaz arduratzen den organoa ez da Bulego hau, baizik eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea.

Gainera, irizpenak dioenez, udalaren osoko bilkuraren bileren audioa osorik atzitzea edo grabatzea eta gerora komunikatzea, lagatzea edo zabaltzea, legez babestu ahal da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 70.1 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 30. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Osoko bilkurak grabatzeko eta grabazioen zabalkunderako ez da beharrezkoa adostasuna. Horrenbestez, Bulegoaren ustez, salbuespenak bakarrik balio beharko luke osoko bilkuretako edo unean uneko batzordeko kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten edo gonbidatuta dauden beste pertsonentzat.

Horrez gain, grabazio bidez irudiak hartuz egiten den datu tratamenduak bete egin beharko du Erregelamendu Orokorraren 5.1a) artikuluak xedatutako gardentasunaren printzipioa. Beraz, nahitaez eman behar zaie tratamenduaren gaineko informazioa bertaratzen direnei.

- **Polizia-jardunetan jasotzen diren datu pertsonalak hirugarrenei komunikatzea (CN20-012)**

METRO BILBAOk udaltzaingoari informazioa eskatu dio metro-geltoki batean gertatutako gorabehera batzuetan parte hartu duten pertsonen datuei buruz, pertsona horiek Udaltzaingoak identifikatu baititu hainbat jarduketatan. Udalak galdetu du ea informazio hori ematea zuzenbidearen arabera ondo dagoen, eta bereziki ea betetzen den datuak babesteari buruzko araudia.

Tratamendu horrek babesa izan behar du Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan jasotzen diren oinarri juridikoetako batean. Zehazki, bi informazio-eskari dira, eta biek ere eduki eta norainoko diferentea dute: bata egin zen bidaiari batek metroko tren batean segurtasun-zaintzaileei mehatxu eta irain egiteagatik gertatutakoen ondorioz; eta bestea, txartelik ez zeukan bidaiari batekin gertatutako gorabehera baten ondorioz.

Lehenengo kasuan, tratamenduak babesa izan dezake Erregelamendu Orokorraren 6.1. c) artikuluan, delitu baten egitea ikusten duenak horren salaketa egiteko duen betebeharrarengatik (PKL), edo 6.1 f) artikuluan jasotzen den interes legitimoarengatik, baldin eta gorabeheran parte hartu zuen pertsonaren nortasuna jakitea beharrezkoa bada eskatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua). Eta betiere datuak minimizatzearen printzipioa beteta.

Bigarren kasuan, udaltzaingoari informazio hori eskatu zaio jokabidea Eusko Jaurlaritzako sail batean salatzeko. Baina Administrazioa eskudun denez zehapen-prozedura hasteko eta izapidetzeko, organo horrek eskatu behar dio zuzenean udaltzaingoari gorabeheran parte hartu zuen pertsona identifikatzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den informazioa (minimizatzearen printzipioa).

- **Osasun Sailari Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleen datuak komunikatzea (CN20-013)**

Ikastetxeetako ikasle guztien datuak Osasun Sailari lagatzea COVID-19arekin kutsatutako ikasleen kontaktuak errazago arakatzeko ez da egokia ekainaren 20ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 26. artikuluaren arabera. Ikastetxeetan COVID kasuak agertzen direnerako protokolo osagarria helburu horretarako tresna efikazagoa da, eta hobeto errespetatzen du oinarrizko eskubidea.

- **Polizia-jardunetan jasotzen diren datu pertsonalak hirugarrenei komunikatzea (CN20-011)**

ALOKABIDE SA sozietate publikoak udaltzaingoari informazioa eskatu dio gizarte-alokairuko hiru etxebizitzatan egindako polizia-jardunei buruz. Horretarako, ALOKABIDE SAk etxebizitza horien helbidea eman du, bai eta maizterren nortasunari buruzko datuak ere; gainera, polizia-jardun horiek zein denbora-epetan egin diren zehaztu du. Udalak DBEBri galdetu dio ea komunikazio horrek datuak babesteko araudia betetzen duen. Kontsultan ematen den informaziotik ez da argi ondorioztatzen ALOKABIDE SAk udaltzaingoari zertarako eskatu dizkion jardun horiek. Soilik azaltzen du gizarte-alokairuko etxebizitzak kudeatzen dituela eta informazioa behar duela bizikidetza-arazo batzuk daudelako. Datu pertsonalen tratamendu orok –komunikazioa edo lagapena tratamendua da– legitimatuta egon behar du Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluko kausetariko bat dela medio.

ALOKABIDE SA sozietate publikoak gomendatuta dauka alokairu-araubideko etxebizitzak eta edozein tituluren bidez atxikitzen zaizkion etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak kudeatzea, bai errentamenduan, bai erabiltzeko aldi baterako lagapenean, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarentzat berezko tresna eta zerbitzu tekniko izaera duen aldetik. Eta ALOKABIDE SAri gomendatutako zereginetatik ondorioztatzen denez, eta kontuan hartuta zeregin horietatik ez dela administrazio-ahalik sortzen, Bulegoaren ustez ez dago oinarri juridikorik datu pertsonalen tratamendu horretarako, hau da, sozietate publikoari Udaltzaingoak egindako polizia-jardunetan agertzen den informazio pertsonala komunikatzeko edo lagatzeko.

Informazio gehiagorik eduki ez arren, Bulegoaren ustez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak (zeinari atxikita baitago ALOKABIDE SA) Udaltzaingoari zuzenean eskatu ahalko lioke legeak esleitzen dizkion eskumenak egikaritzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa duen informazio pertsonala. Hori ondorioztatzen da Sailak berak ALOKABIDE SArentzako enkarguan bere gain hartzen dituen konpromisoetan.

Halaber, kontuan izan behar da datu pertsonal horiek udaltzaingoak jaso dituela bere polizia-jardunetan. Beraz, 3/2018 Lege Organikoaren 27. artikuluan arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamenduari buruz ezartzen dena aplikatu beharko litzateke, baita 3/2018 Lege Organikoaren 10. artikuluan, izaera penaleko datuen tratamenduari buruzkoan ezartzen dena. Eta eskatutako informazioak barnean hartzen baditu artikulu horietan azaltzen diren datuak, artikuluotan agertzen diren mugak aplikatu beharko dira.

- **Jaraunsle bati datu pertsonalak komunikatzea. Datu pertsonal horiek udal gainbalioaren gaineko zergaren likidazioan agertzen dira, zeinean zergaduna jaraunspen jasogabearen jaraunsle baita (CN21-001)**

Udal batek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kontsultatzen dio ea bidezkoa den ala ez jaraunspen jasogabearen jaraunsleetako bati ematea kontu baten zenbakia eta kontu horren titularraren izena, kontu horretatik egin baitzen transferentzia jaraunspen jasogabearen aurka bere identifikazio fiskaleko zenbakiarekin sortutako eta likidatutako hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren ordainketarako.

Datu horiek hirugarren bati komunikatzea edo lagatzea datuak babesteko araudiaren mendean dago, eta tratamendu horrek legitimatuta egon behar du Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluko kausetariko bat dela medio. Gainera, informazio-eskaria jaso duen Udalak zerga-administrazio gisa jarduten du, udal zerga baten likidazioa tartean dagoelako. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak berariazko araubidea ezartzen du zerga-arloan ondorioak dituzten datuen lagapen edo komunikazioari dagokionez, eta ezin zaizkie hirugarrenei laga, ezta komunikatu ere, foru arau horretan ezartzen diren kasuetan izan ezik. Udal zergaren likidazioa jaraunspen jasogabera, bere IFK propioarekin egin da. Hori kontuan hartuta, zerga horren ordainketaren zenbatekoa transferentzia bidez Udalari ordaindu dion pertsonaren identitateari buruzko aurrekariak eta transferentzia egiteko erabili den bankuko kontuaren zenbakia datu erreserbatuak dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hala ezartzen duelako, eta Udalak halako datu pertsonalak komunikatzeko ez dauka inolako lege-babesik.

- **Informazio irisgarria Kontzeju bateko herritarrentzat (CN21-002)**

Kontzeju ireki bateko herritarrek kontzejuaren agiri publikoetara irispidea izateko eskubidea dute. Zehazki, eskubidea dute kontuen berri izateko (hori gardentasunari buruzko legeengatik nahitaezkoa da), eta horrez gain interes legitimoan oinarrituta Kontzejuko errolda egiten parte hartzen duten deklaratzaileak nor diren jakiteko eskubidea, bai eta Kontzejuak hartutako erabakien aktak jakiteko ere.

- **Herritarren arretarako udal bulegoetan izapideak norberak egiteko makinen bidez** egindako errolda-bolanteak (CN21-003)

Kontsultaren xede diren auzien ardatza da, funtsean, udal biztanle-erroldan egindako datu-tratamendua, zehazki herritarren arretarako udal bulegoetan izapideak norberak egiteko jarritako makinen bidez errolda-bolanteak —banakakoak nahiz bizikidetzakoak— jaulkitzean egiten den tratamendua. Errolda-bolanteak egitea eta ematea datu pertsonalak tratatzea da; eta interesduna ez diren gainontzeko pertsonen datuei dagokienez, horien datu pertsonalak komunikatu egiten dira. Erregelamendu Orokorrak 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan den zilegi datu pertsonalen tratamendua eta kasu horien artean jasotzen da a) apartatukoa, hau da, interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira. Datu pertsonalen titularrak bere banakako bolantea eta bolante historikoa jasotzen dituenean datuak babesteko araudia bete beharko da, oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna delako, baldin eta interesdunak betetzen baditu Erregelamendu Orokorrean (4.11 eta 7. artikuluak) eta 3/2018 Lege Organikoan ezarritako baldintzak. Bizikidetzako errolda-bolantean, agiria eskatzen duen pertsonarekin helbide berean erroldatuta dauden pertsonak agertzen dira. Agiri hori jasotzeko ere pertsona horien adostasuna beharko da. Udalak, adingabeen datu pertsonalak ematen dituenean, datuak babesteko araudiak horretarako ezartzen duena bete beharko du (14 urtetik gorakoak direnean baliozko adostasuna; adin horretatik beherakoak direnean, berriz, guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularraren adostasuna beharko da). Udalak planteatzen du eskatzailearen helbidean erroldatutako pertsona guztiak jasoko ez dituen bizikidetzako bolante bat egiteko aukerarik dagoen, hau da, euren datuak konpartitzeko adostasunik eman ez duten pertsonak bolante horretatik kanpo uzteko aukerarik; hala eginez gero, urratu egingo lirateke 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenean, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakaritzak eta Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak emandakoan udal erroldaren kudeaketari buruz jasotzen diren jarraibide teknikoak. Ebazpen horrek ezartzen duenez, ezin da batzuei buruzko errolda egiaztagiririk edo bolanterik egin; eta, egitekotan, etxebizitza berean inskribatuta dauden guzti-guztiei buruzkoak izan behar dira.

Errolda-bolanteak jasotzeko identifikazio-sistemen segurtasunari dagokionez, tratamenduaren arduradunak baloratu beharko du NANaren titularrek agiri horren kontrola galtzeko arriskuak eta bestelakoak gertatzeko probabilitaterik dagoen edo, bereziki, hirugarrenek agiri horiek titularren kalterako faltsutzeko edo manipulatzeko erraztasun edo aukerarik dagoen; halaber, baloratu beharko du NAN faltsutu edo manipulatu bat erabilita errolda-bolante bat jasoz identitatea ordezteak NAN horren titularrei ekarri ahal dizkien ondorioen larritasuna. Nolanahi ere, udalak Segurtasun Eskema Nazionalean aurreikusitako neurrien artetik egokiak direnak aplikatu beharko dizkie datu pertsonalen tratamenduei (3/2018 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarria).

- **Hiri lurzoru finkatu gabeko eremu baten hirigintza-garapenaz arduratu behar duen merkataritza-etxe sustatzaile bati udal erroldako datuak lagatzea (CN21-004)**

Datuak babesteko eskubidea gorabehera, hirigintza-sustatzaileek irispidean izan ditzakete hirigintzako planeamenduarekin bateraezinak diren higiezinen legezko okupatzaileen datuak, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren eta Lege hori garatzeko araudiaren bidez ezarritako eginbeharrak betetzeko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1 f) artikuluan arautzen den interes legitimoa dagoelako.

- **Kontzejuetako Auzotarren Batzarrak grabatzea (CN21-005)**

Pertsonaren irudia eta ahotsa datu pertsonalak dira, hala xedatzen duelako Erregelamendu Orokorraren 4.a) artikuluan datu pertsonalari buruz jasotako definizioak. Eta Auzotarren Batzarren osoko bilkuren eta bestelako bileren grabazioen bidez irudiak eta soinuak jasotzea datu-tratamendua da, datu-babesari dagokionez. Aztertu behar da ea tratamendu horrek lege-babesa daukan Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan aldarrikatzen den zilegitasunaren printzipioaren arabera. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren 18.1 artikuluan horri buruzko xedapen bat agertzen da. Artikulu horrek kide anitzeko organoen aktak arautzen ditu eta gaikuntza emango lioke egin nahi den tratamenduari.

Tratamenduaren arduradunek Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan aldarrikatzen diren printzipioak errespetatu beharko dituzte. Gainera, kontuan hartzen da Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuak ere Administrazio Publiko direla.

Printzipio horien artean gardentasunaren printzipioa nabarmendu behar da. Horren arabera, interesdunei informazioa eman behar zaie datu pertsonalak biltzen direnean, eta hori Erregelamendu Orokorraren 12., 13. eta 14. artikuluetan eta 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluan agintzen denaren arabera egingo da. Kontsultan azaltzen den kasuan, gardentasunaren printzipioak behartuta, Kontzejuek, tratamenduaren arduradun diren aldetik, Auzotarren Batzarretara joaten direnei jakinarazi beharko diete bilerak grabatu egingo direla, legeak agintzen duenaren arabera.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 f) artikuluak xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamenduari aplikatu beharreko printzipioetako bat osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa da. Printzipio horren arabera, behar bezala segurtatzeko moduko tratamendua jasoko dute datu pertsonalek, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesa eta datuok ustekabean galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa barne, horretarako neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak erabiliz (32. artikulua). Tratamenduaren arduradunak Administrazio Publikoak direnean (eta hala da kasu honetan), arduradun horiek Segurtasunaren Eskema Nazionalean dauden segurtasun-neurrietatik dagozkienak aplikatu beharko dizkiete datu pertsonalen tratamenduei (3/2018 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriko 2. apartatua).

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean fitxategiak sortu eta aitortzeko betebeharra ezabatzen da, eta horren ordez «tratamendu-jardueren erregistroa» izenekoa sortzen da. Erregistro horren edukia 30. artikuluan arautzen da. Hala,

tratamenduaren arduradun bakoitzak bere ardurapean egindako tratamendu-jardueren erregistro bat eramango du (Erregelamendu Orokorraren 30. artikulua) eta, 3/2018 Lege Organikoaren 31.2 artikuluaren arabera, Administrazioek beren tratamendu-jardueren zerrenda jarriko dute jendaurrean, baliabide elektronikoen bidez irisgarri, non Erregelamendu Orokorraren 30. artikuluak jasotako informazioa eta haren lege-oinarria jasoko baitira.

- **Polizia-jardunetan jasotzen diren datu pertsonalak Metro Bilbao sozietateari komunikatzea (CN21-006)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea Metro Bilbao legitimatuta al dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei —Ertzaintzari eta Udaltzaingoari— eskatzeko kidego horiek identifikatutako pertsonen datu pertsonalak, Metro Bilbaok polizia horien jarduketa eskatu duenean bere instalazioetan egindako arau-hauste administratibo, penal edo zibilengatik, administrazio-bidean edo zigor-bidean salaketak edo erreklamazio zibilak jartze aldera.

Datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du Erregelamendu Orokorraren 6.1. artikuluko kausetariko bat dela medio.

Lege-gaikuntza egongo litzateke segurtasun-indar eta -kidegoek, metroaren erabiltzaileek egindako arau-hausteen artetik irailaren 29ko 38/2015 Legean eta uztailaren 30eko 16/1987 Legean bildutakoak gertatzeagatik METRO BILBAOk eskatuta agertzen direnean, eta erabiltzaile horien identifikazio-datuak bildu dituztenean, METRO BILBAOri laga diezazkioten, arau-hauste horien berri administrazio-organo eskudunei eman ahal izateko.

METRO BILBAOren erabiltzaileen ekintza bat arau-hauste penala izan daitekeenean, Segurtasun Indar eta Kidegoek ekintza horietan parte hartu dutenen datu pertsonalen tratamendua egin behar badute, bete egin beharko da 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, baldin eta fitxategi batean gordetako edo gorde beharreko datuen tratamendu hori arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko egiten bada, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxuok prebenitzeko ere.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, Lege Organiko hori kontuan hartuta, datu horiek METRO BILBAOri komunikatzeko ez litzateke egongo oinarri juridiko legitimatzaile nahikorik.

Zigor-eremutik kanpo, zerbitzuaren erabiltzaile batek kalteak sortu baditu eta METRO BILBAOk hari erantzukizun zibila eskatu ahal badio, erabiltzaile horren datu pertsonalen tratamendua Erregelamendu Orokorraren eta 3/2018 Lege Organikoaren mendean egongo da erabat. Beraz, tratamendua Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluko oinarrietako baten babespean egin beharko da. Oinarri horietako bat da interes legitimo bat egotea [6.1 f) artikulua], non eta interes legitimo horren eta ukituen oinarrizko eskubideen ponderazioa egindakoan interes horien gainean ez dauden oinarrizko eskubide horiek. Baliteke interes legitimoa egotea, baldin eta gorabeheran parte hartu zuen pertsonaren nortasuna jakitea beharrezkoa bada eskatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua).

- **Gizarte zerbitzuen ikuskatzailetza zerbitzuak adinekoen egoitza-zentroetako erabiltzaileen osasun-datuetara irispidea izatea (CN21-007)**

Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzuko buruak bere kontsultan azaltzen duenez, gizarte-zerbitzuen arloan legez esleitutako zereginak betetzeko, adinekoen egoitza-zentroetan izandako gertakarien ikerketa-jarduerak egiten dituzte, bai eta zentro horien titular diren entitateen jarduketei buruzkoak ere; batzuetan, gertakari horiek ikertu eta baloratzeko, zentroetako egoiliarren osasun-datuetara irispidea izan behar dute, eta datu horiek Osakidetzaren esku daude. Kontsultagileak dioenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, datu horiek emateko, pertsonaren edo haren ordezkariaren adostasuna eskatzen die. Horregatik, kontsulta hau egiten dute:

Erregelamendu Orokorraren 6.1. e artikuluan oinarrituta, ea Osakidetzak irispidea eman behar digun Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Ikuskatzailetza Zerbitzuak izapidetutako espedienteak ebazteko beharrezkoak diren datuetara, ukituaren adostasuna behar izan gabe.

Datuak babesteko araudiaren arabera, ezinbestean atera beharreko ondorioa hau da: gizarte-zerbitzuen ikuskatzaileek adinekoen zentroetako egoiliarren historia klinikoko datuetara irispidea izatea ez dago legitimatuta Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikuluaren babespean. Datu horien tratamendurako legitimazio-oinarria Erregelamendu Orokorraren 9.2 artikuluan bilatu beharko da; manu horretan, salbuespen gisa, datu horien tratamendurako bidea ematen da, manuan bertan ezarrita dauden kasuetan. Horrenbestez, aztertu behar dugu ea, datuak komunikatzeko, legitimazio-oinarri horietako baten lege-babesa nahikoa den.

Ikuskapen-eginkizunak betetzen dituzten osasun-arloko profesionalek soilik izan ahal dute irispidea historia klinikora osasun-laguntzaren kalitatea egiaztatu ahal izateko. Hirugarren pertsonek ikuskapen-helburuarekin historia klinikora irispidea izateko, gaur egun ez dago lege-babesik; beraz, datu horietara irispidea izateko, interesdunak edo haren legezko ordezkariak berariazko adostasuna eman beharko du, eta adostasun horrek Erregelamendu Orokorraren 7. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Zalantzarik gabe, adinekoen zentroetako egoiliarren eskubidea da arreta egokia jasotzea, arreta pertsonalizatua, euren ongizatea hobetuko duena, behar dituzten zaintzekin, bai arlo sozialean bai osasun-arloan. Horretarako, zentro horietan ikuskapen- eta ebaluazio-lanak egin behar dituzten administrazio-atalek lankidetzan aritu beharko dute, baita beren ekintzak koordinatu ere, hala agintzen baitu martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzekoaren 40. artikuluak.

- **Bide publikoan kamera bat instalatzea obra baten egikaritzapen-prozesua dokumentatzeko (CN21-008)**

Bide publikoan kamera bat Segurtasun Indar eta Kidegoek instalatu ahal dute segurtasun publikoa helburu bada. Bestalde, azaldutako helburua lortzeko,

pribatutasunerako hain intrusiboak ez diren beste datu-tratamendu batzuk erabili ahal dira (aldizkako argazkiak).

- **Bideozaintza-sistema bat instalatzea eskola batetik hurbil (CN21-009)**

Ikastetxe batek kamerak instalatu nahi ditu jolas-guneetan, bai eskola-orduetan bai eskolaz kanpoko orduetan, pertsonen (adingabeen) eta ondasunen segurtasuna bermatzeko. Horri buruz Datuak Babesteko Euskal Bulegoak dioenez, gailu horiek instalatzeko ahalegin bat egin behar da justifikazioen aldetik, eta halakorik ez da egiaztatu; bestalde, kamerak eskola-orduetan erabiltzea ez dator bat datuak babesteko araudiarekin, nahi den helburua lortzeko hain intrusiboak ez diren bitartekoak daudelako.

## 3.3. TXOSTENAK

2020an hamar legezkotasun-txosten egin ziren:

- Arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko asmoz tratatu beharreko Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren aurreproiektua
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen Dekretuaren proiektua
- Miokardioko Infartu Akutuaren EAEko Erregistroa sortzeko eta haren funtzionamendua arautzeko Dekretuaren proiektua (Bihotzez Erregistroa)
- Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuari dagokion egoitza judizial elektronikoa sortzeko Aginduaren proiektua
- 2020ko Urteko Estatistika Programaren dekretu-proiektua
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko Dekretuaren proiektua
- Euskaraz egindako ikasketa ofizialak ezagutzen dituen eta ikasketa horiek euskarazko hizkuntz titulu eta ziurtagiriekin egiaztatzetik salbuesten duen dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretuaren proiektua
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko hitzarmena
- Euskal Estatistika Erakundearen, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen eta Euskal Herriko Notario Elkargoaren arteko lankidetza-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko notario-protokoloetan egiletsitako eta gordailututako eskritura publikoen aprobetxamendu estatistikoa egitekoa
- Europako Gobernantzari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendu-proposamenak (Datuen Gobernantzari buruzko Legea) subsidiariotasun-printzipioa betetzen duen ala ez

2021ean legezkotasun-txosten hauek egin dira:

- Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu Ondarearen lege-aurreproiektua
- Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren lege-aurreproiektua
- Urteko Estatistika Programaren Dekretua
- Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lege-aurreproiektua
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua aldatzeko dena
- Kirol Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Gaitutako Funtzionarioen Erregistroaren Agindu-proiektua
- Arau-hausteak prebenitzeko, detektatzeko edo epaitzeko finantza-informazioa eta bestelako informazioa erabiltzea erraztuko duten arauak ezartzen dituen lege organikoaren aurreproiektua
- EAEko Administrazio Orokorraren, Hezkuntza Sailaren eta ONCEren arteko lankidetza-hitzarmena
- 2022ko Urteko Estatistika Programaren Dekretua

## 3.4. BILERAK

Bi urte hauetan batzar presentzialen kopuruak behera egin du COVIDa dela-eta. Horren ondorioz, Bulegoak dauzkan kanal batzuen eta besteen bitartez egindako aholkularitza-jarduerak gora egin du.

Batzar presentzialak egin dira EAEko Administrazio Orokorreko eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko datuak babesteko ordezkariekin eta Osasun Sailarekin. Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin eta Metro Bilbaorekin ere bilera bat egin zen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak laneko batzarrak egin ditu datu pertsonalen babesaren arloko gainerako kontrol-agintaritzekin, zeinekin Bulegoak aldizka batzarrak egiten baititu bideokonferentzia bidez. Gainera, 2021eko azaroan Donostian datuak babesteko agintaritzen koordinazio-jardunaldi bat egin zen.

## 4. KONTROL-JARDUERA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol jarduera burutzeko, datuak babesteko legeria bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio eta instituzio publikoek legeria hori behar bezala aplikatzen dutela ere kontrolatzen du eta, hala badagokio, ahal zuzentzaileak baliatzen ditu.

Gainera, interesdunek egiten dizkioten eskubideen babes-erreklamazioak ebazten ditu, tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide bat baliatu nahi izan eta tratamenduaren arduradunak ez badu behar bezala erantzun.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-agintaritza guztiei, adibidez, ikerketa-ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, ezar daitezkeen arau-hausteak, zehapenak edo jarduera zuzentzaileak arautzen ditu.

Bestalde, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. titulua zehapen-araubideari buruzkoa da, eta bertan xedatzen da arau-hausteak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezkeela, preskripzio-epeak zehaztearen ondorioetarako.

3/2018 Legeak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak bezala, ez du zehapen ekonomikorik ezartzen Administrazio Publikoentzat; dena dela, administrazio horiek jokabide hori eteteko edo arau-haustearen ondorioak zuzentzeko hartu beharreko neurriak ezarriko dituzte. Bestalde, datuak babesteko agintaritzak diziplinako jarduketak abiarazi ahal dituela aurreikusten da, horretarako adina zantzu egonez gero.

Baina horrez gain —eta legeak dakarren alderdi berria da hau—, arau-hausteak agintariei eta zuzendariei egoztekoak badira, eta egiaztatzen bada badela tratamenduari begira egindako txosten tekniko edo gomendiorik eta ez zaiela behar bezala jaramon egin, kargudun arduradunaren izena daraman ohartarazpen bat sartuko da ebazpen zehatzailean, eta Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ohartarazten du herritarrek tresnak behar dituztela benetan bakoitzak kontrolatu ahal izateko bere informazio pertsonala eta, horretarako, datuetarako irispiderako eskubideari, datuak zuzentzekoari, ezereztekoari eta tratamenduaren aurka egitekoari beste berri bi gehitu dizkie: tratamendua mugatzeko eskubidea eta datuak transferitzeko eskubidea.

Horrekin lotuta, ikusten denez, Bulegoak jaso dituen babes-eskariek agerian uzten dute herritarrak kezkatuta daudela norberaren datuen gaineko kontrola dela eta.

Erreklamazioa jaso duten Administrazioek laguntza egokia eman dute, orokorrean; hala ere, batzuetan, Bulegoak behin eta berriz eskatu behar izan du informazioa —bereziki Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatu dio—, baita ohartarazi ere ezen, Datuak Babesteko Agintaritzari ez laguntzea jokabide zehagarria dela, Erregelamendu Orokorraren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Azkenik, nabarmendu behar da 2021ean maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa onartu zela. Lege Organiko horren bidez barne-ordenamendu juridikoan

transposizioz jasotzen da 2016/680 Zuzentaraua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babestearen gainekoa, agintari eskudunek arau-hausteak edo zigor penalak prebenitu, ikertu, antzeman edo auzitaratzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruz eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez.

Lege Organiko horren bidez eginkizun eta ahalmen zabalak jartzen dira datuak babesteko agintaritzen esku, besteak beste ikertzeko eta kontrolatzeko ahalak, egindako arau-hausteak zehatzekoa barne dela.

## 4.1. ESKUBIDEEN BABESA

Bi urte hauetan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako babes-erreklamazioetako asko ezetsi dira, Administrazioek behar bezala bete dituztelako erreklamatzaileek egikaritutako eskubideak.

Hala ere, kasu batzuetan eskubide horiek legez ezarritako epetik kanpo betetzen dira. Alde horretatik, berriro ere esan behar da eskubidea epez kanpo betetzea oinarrizko eskubidea urratzea dela. Gainera, Administrazio Publikoei esan egin behar zaie nahitaez erantzun behar dietela herritarrek baliatzen dituzten eskubideen eskariei. Administrazio-isiltasuna ez da besterik gabe administrazio-jardunbide desegoki bat, urraketa bat delako, hau da, batetik, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak agintzen duen «ebatzi beharra» urratzen duelako eta, bestetik, datuen babesari buruzko araudia ere urratzen duelako.

Eskubideak egikaritzeari dagokionez, argi eta garbi nagusi izan dira datu pertsonaletara iristeko eta haiek ezerezteko eskariak, funtsean historia klinikoari eta polizia-fitxategietan dauden datuei buruzko eskariak. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritako gainerako eskubideak egikaritzeari buruzko arazoak oso-oso gutxitan agertu dira.

Jarraian jasotzen dira 2020. eta 2021. urteetan ebatzitako eskubideen babes-erreklamazioak, eta nabarmendu behar da azken urtean Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako erreklamazioak aurreko urtekoak halako hiru izan direla.

### 4.1.1. Datuetara irispidea izateko eskubidea

- **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren fitxategietan dauden datu pertsonal batzuetara irispidea izatea (ET19-045)**

Babes-erreklamazioa ezetsi da, Administrazioak bete egin duelako erreklamatzailearen eskubidea, hain zuzen ere datuetara irispidea izatekoa. Administrazioak erreklamatzailearen informazio pertsonala eman zuen, erreklamatzaileak berak eskatuta, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, baina ebazpen horretan bertan ukatu egin zuen Lanbide-EEZtik erreklamatzailearen datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea eskatu zuten pertsonen identifikazio-datuak emateko eskaria. Interesdunak, irispide-eskubidea egikaritzean, eskubidea du arduradunak eman diezaion datu pertsonaletarako irispidea, eta hori ez ezik, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziorako irispidea ere. Baina Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluak jasotzen duen informazioaren barruan ez daude tratamendu-arduradun

den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen espedienterako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

- **Polizia-jardunekin zerikusia duten irudien grabazioak eskuratzea (ET19-047)**

Euskalduna jauregiko bideozaintza-sistemek jasotako grabazio batzuk Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari igorri zitzaizkion, eta grabazio horiek eskuratzeko eskatzen da. Datuak Babesteko Lege Organikoaren 23. artikuluak arautzen du zein salbuespen dauden datuetara irispidea izateko eta datuak zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubideetarako. Beraz, ondorioztatu behar dugu kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak irispide-eskubidea mugatu izana bat datorrela datuak babesteko araudiarekin.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET19-052)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak garaiz eta behar bezala ebatzi du erreklamatzaileak egindako eskaria, historia klinikorako irispidea izateari buruzkoa. Hala ere, agiri horiek ezin izan dira entregatu, artxibatuta zeuden Osasun Zentroan egondako sute batek suntsitu dituelako, aurkeztutako agiri-frogen bidez erakutsi denez.

- **Gizarte-txostenerako irispidea izatea (ET19-053)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da, erreklamatzaileak ez duelako egikaritu bere datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea, Datuak Babesteko Erregelamenduan onartzen den hori, baizik eta bere «gizarte-espedientera» irispidea izatekoa, hau da, artxibo eta erregistroetara irispidea izateko eskubidea egikaritu du, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean arautzen dena, eta eskubide hori kontrolatzea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

- **Polizia-jardunetarako irispidea izatea (ET19-054)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da, erreklamatzaileak ez duelako egikaritu bere datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea, Datuak Babesteko Erregelamenduan onartzen den hori, baizik eta polizia-jardun batzuetara irispidea izatekoa, hau da, artxibo eta erregistroetara irispidea izateko eskubidea egikaritu du, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean arautzen dena, eta eskubide hori kontrolatzea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

- **Ertzaintzaren medikuntza-zerbitzuan dauden osasun-datuetara irispidea izatea (ET19-056)**

Kasu honetan, babes-erreklamazioa baietsi da, irispidea izateko eskubidea epez kanpo bete delako.

Horren haritik, gogora ekarri behar da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15.etik 22. artikulura bitartekoetan ezarritako eskubideak behar bezala bete behar direla; izan ere, eskubide horien egikaritzea «eragoztea edo oztopatzea edo behin eta berriz hari ez erantzutea» arau-hauste oso astuna da Erregelamendu Orokorraren arabera.

Hala eta guztiz ere, zehazki zedarritu behar da zein den baiespen horren norainokoa, arrazoi honengatik: espedientean dauden agirietatik ondorioztatzen denez, erreklamazioa aurkezten duen aldeak egikaritutako irispide-eskubidea, berandu izan arren, zorrotz hartuta Administrazioak bete egin du alderdi materialetik, babes-espediente hau izapidetzean.

- **Segurtasun Sailak izapidetutako espedientera irispidea izatea (ET20-003)**

Baietsi da erreklamatzaileak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzaren aurka jarritako erreklamazioa, arrazoi formalak tarteko, eskubidea epez kanpo artatu delako. Administrazioak erreklamatzaileari haren informazio pertsonala eman dio eta erreklamatzailea ez dago ados, soilik tratamendu-arduradun diren pertsonen identifikazioa eman ez zaiolako legezko akzioak hasi ahal izateko, bidezkoa balitz. Erreklamatzaileak, irispide-eskubidea egikaritzean, eskubidea du arduradunak eman diezaion datu pertsonaletarako irispidea, eta hori ez ezik, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziorako irispidea ere. Baina Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluak jasotzen duen informazioaren barruan ez daude tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

- **Segurtasun Sailak eskura jarritako irispideak (ET20-004)**

Erreklamazioa ezetsi da, Administrazioak bete egin duelako erreklamatzailearen eskubidea, hain zuzen ere datuetara irispidea izatekoa. Erreklamatutako Administrazioak erreklamatzaileari haren informazio pertsonala eman dio, ET19-008 espedientean emandako baiespen-ebazpena betearaztearren. Eta Administrazioak emandako informazio horrekin erreklamatzailea ez dago ados zati batean, bere datu pertsonaletara irispidea izan duten funtzionarioen izena edo lanbide-zenbakia ez zaiolako eman. Erreklamatzaileak, irispide-eskubidea egikaritzean, eskubidea du arduradunak eman diezaion datu pertsonaletarako irispidea, eta hori ez ezik, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziorako irispidea ere. Baina Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluak jasotzen duen informazioaren barruan ez daude tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

- **Segurtasun Sailak eskura jarritako irispideak (ET20-005)**

Erreklamazioa ezetsi da, Administrazioak bete egin duelako erreklamatzailearen eskubidea, hain zuzen ere datuetara irispidea izatekoa. Erreklamatutako Administrazioak erreklamatzaileari bere informazio pertsonala eman dio, ET19-009 espedientean emandako baiespen-ebazpena betearaztearren. Eta Administrazioak

emandako informazio horrekin erreklamatzailea ez dago ados zati batean, bere datu pertsonaletara irispidea izan duten funtzionarioen izenak edo lanbide-zenbakiak ez zaizkiolako eman. Erreklamatzaileak, irispide-eskubidea egikaritzean, eskubidea du arduradunak eman diezaion datu pertsonaletarako irispidea, eta hori ez ezik, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziorako irispidea ere. Baina Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluak jasotzen duen informazioaren barruan ez daude tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

- **Segurtasun Sailak eskura jarritako irispideak (ET20-006)**

Erreklamazioa ezetsi da, Administrazioak bete egin duelako erreklamatzailearen eskubidea, hain zuzen ere datuetara irispidea izatekoa. Erreklamatutako Administrazioak erreklamatzaileari bere informazio pertsonala eman dio, ET19-006 espedientean emandako baiespen-ebazpena betearaztearren. Eta Administrazioak emandako informazio horrekin erreklamatzailea ez dago ados zati batean, bere datu pertsonaletara irispidea izan duten funtzionarioen izenak edo lanbide-zenbakiak ez zaizkiolako eman. Erreklamatzaileak, irispide-eskubidea egikaritzean, eskubidea du arduradunak eman diezaion datu pertsonaletarako irispidea, eta hori ez ezik, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan zehazten den gainerako informaziorako irispidea ere. Baina Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluak jasotzen duen informazioaren barruan ez daude tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

- **Historia klinikorako irispidea izatea (ET20-018)**

Erreklamazioa ezetsi da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskumenik ez daukalako, eta erreklamazioa agintaritza eskudunari (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) igorri zaio, ebatz dezan.

- **Agiritegietara irispidea izateko eskaria (ET20-020)**

Kasu honetan, erreklamatzaileak udalari eskatu dio udaltzaingoaren datu-basean dauden agiri batzuetara irispidea izatea. Bulegoak ez du onartu erreklamatutako babesa; izan ere, espedientean dauden agiriak eta erreklamatzaileak berak esandakoa kontuan hartuta, honako hau egiaztatzen da: kasu honetan egikaritutako eskubidea ez da norberaren datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea, Erregelamendu Orokorrean onartzen den hori, baizik eta artxibo eta erregistroetara irispidea izatekoa, 39/2015 Legean arautzen den hori; horregatik, Lege horren manuen arabera egin behar dira eskubide horri buruzko eskariak. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, baizik eta Udalari. Egintza horren aurka errekurtsoa aurkez daiteke administrazio-bidean edo auzien jurisdikzioan.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET20-010)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak erreklamatzaileari errekerimendua egin baitzion, eskaera konpon zezan; zehazki, bere nortasuna egiazta zezala, eskubide guztiz pertsonala zegoelako tartean. Hala ere, erreklamatzaileak ez zuen ezer ere egin eta, hortaz, erreklamazioa jaso zuen administrazioaren ustez, erreklamatzaileak eskaeran atzera egin zuen.

Erreklamatzaileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Trazabilitate-datuetara irispidea izatea (ET20-012)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoan babes-erreklamazio hau jaso da: erreklamatzaileak trazabilitate-datu batzuetara irispidea izateko eskaera aurkeztu du, berak Gipuzkoako Foru Aldundiaren hautaketa-prozesu batean parte hartzeko egindako izapide telematiko bati buruz. Zenbait informazio-errekerimendu egin dira, baina ez zaie arretarik egin. Horren ostean, errekerimenduak jaso dituen Administrazioan ikuskapen-bisita egin da, eta egiaztatu da bertan daudela erreklamatzaileak eskatutako datuak. Erreklamazioa baietsi da.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET20-019)**

Formalki baietsi da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa; izan ere, berandu hartu zen aintzat erreklamatutako eskubidea.

Erreklamatzaileak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpen horren aurka, eta Bulegoak errekurtsoa ezetsi du.

- **Segurtasun Sailak dauzkan datu medikoetara irispidea izatea (ET20-021)**

Erreklamazioa baietsi da, ez zelako bete erreklamatzailearen irispide-eskubidea, eta Administrazio horri errekerimendua egin zaio, erreklamatzaileari bidea eman diezaion bere datu pertsonaletara irispidea izateko, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan ezarritako baldintzak zorrotz beteta.

Erreklamazioa jaso duen Administrazioak egindako jarduketen berri eman dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta eskatutako espediente medikoa erreklamatzailearen esku jarri du.

Interesdunak baiesteko ebazpenaren aurkako errekurtsoa jarri du administrazio-bidean, eta errekurtsoa ez da onartu, legez ezarritako hilabeteko epetik kanpo aurkeztu delako.

- **Segurtasun Sailak dauzkan datu pertsonal batzuetara irispidea izatea (ET20-022)**

Erreklamazioa baietsi da, irispidea izateko eskubidea legez ezarritako epetik kanpo artatu delako. Halaber, tratamenduaren arduradunari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak pertsonei onartzen dizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan. Espedientean

agertzen den informaziotik ondorioztatzen denez, irispidea izateko eskubidea, erreklamatzaileak egikaritutako eskubide hori, Segurtasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez bete zen, berandu izan arren.

- **Laneko historia klinikora irispidea izatea (ET21-002)**

Formalki baietsi da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa, erreklamatzaileak egikaritutako irispide-eskubidea garaiz kanpo bete zelako; hala ere, erreklamatzaileak adierazitako uzia, bere historia klinikora hainbat aldiz bidegabeki irispidea izateagatik Bulegoak arau-hauste prozedura ireki zezala lortzekoa, ezetsi egin da, uzi hori prozedura diferente batean hezurmamitu behar delako, ebatzi ahal izateko ea erreklamatzaileak salatutako datu pertsonalen tratamenduak datuak babesteko araudia urratzen duen ala ez.

Erreklamatzaileak ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Hilda dagoen amaren historia klinikora irispidea izatea (ET21-003)**

Erreklamatzaileak alegatzen duenez, Osakidetzak ez dio eman eskatutako dokumentazio guztia, hildako amaren historia klinikoari buruzkoa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak informazioa eskatu du, eta Osakidetzak, errekerimendu horri erantzuteko, jasotako irispide-eskaera guztien eta entregatutako dokumentazioaren kopia aurkeztu du, baina erreklamatzaileak horri buruz gerora ez du alegaziorik aurkeztu. Horregatik, eskubideen babes-erreklamazioa ezetsi egin da.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET21-004)**

Erreklamazioa ezetsi da. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak historia klinikora irispidea izan den aldien berri eman dio erreklamatzaileari, eta desadostasun bakarra da historia klinikora irispidea izan duten profesionalen nortasun-datuen berri ez zaiola eman.

Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan irispidea izateko eskubidearen edukia agertzen da. Bada, eduki horren barruan ez dira jasotzen tratamendu-arduradun den erakundeko enplegatuen, erreklamatzailearen datu pertsonaletarako irispidea izan duten horien nortasun-datuak.

Hala ere, ebazpenean ohartarazten denez, Erregelamendu Orokorraren 6.1 f) artikuluan azaltzen da interes legitimoa oinarri legitimatzailea dela, babes berezirik behar ez duten datu pertsonalen tratamendurako, adibidez identifikazio-datuen tratamendurako. Interes legitimo hori interesdunak aldarrikatu ahal du eta tratamenduaren arduradunak balioetsi, kasu bakoitzean agertzen diren inguruabarrak kontuan hartuta, baldin eta aldarrikatutako interes legitimoak lehentasuna badu ukituen eskubideen aurretik.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET21-005)**

Formalki baietsi da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka aurkeztutako eskubideen babes-erreklamazioa, erreklamatzaileak egikaritutako irispide-eskubidea garaiz kanpo bete duelako; hala ere, erreklamatzaileak prozedura honetan adierazitako uzia, bere historia klinikora hainbat aldiz bidegabeki irispidea izateagatik Bulegoak arau-hauste prozedura ireki zezala lortzekoa, ezetsi egin da, uzi hori prozedura diferente batean hezurmamitu behar delako, ebatzi ahal izateko ea erreklamatzaileak salatutako datu pertsonalen tratamenduak datuak babesteko araudia urratzen duen ala ez.

Interesdunak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET21-006)**

Bulegoan babes-eskaera aurkeztu da, historia klinikora irispidea izateko eskaera egin zaiolako Osakidetzari. Erreklamatzaileak auzitan jartzen du, halaber, mutua batek bere osasun-datuetara irispidea eduki izana. Bulegoak ebazpena eman du. Babesa formalki baietsi du, informaziorako irispidea legez ezarritako epea igaro ondoren izan delako. Mutuen eta Ikuskapen Zerbitzuen arteko datu-komunikazioa aztertu da, eta erabaki da tratamendu hori Erregelamendu Orokorraren (9.2.h) eta araudi sektorialaren babespean dagoela.

- **Lan-espediente pertsonalera irispidea izatea (ET21-012)**

Erreklamatzaileak DBEBra jo du, Donostiako Udalean bere espediente pertsonalera irispidea izateko eskari bat aurkeztu ostean, ez baitu erantzunik jaso legean ezarritako epean.

Udalak onartu du eskariari ez zaiola erantzun, arrazoi ezezagunak direla-eta; adierazi duenez, informazio guztia gehiago berandutu gabe helaraziko diote erreklamatzaileari, eta hori espedientean frogatuta geratu da.

Babes-erreklamazioa baietsi egin da.

- **Datu pertsonaletara irispidea izatea Udalaren enplegu publikoko web-orrian (ET21-015)**

Erreklamatzaileak eskari bikoitza egin du: bere datu pertsonaletara irispidea izatea —datu horiek Bilboko Udalaren web-orrian daude, hautaketa-prozesu publiko batean parte hartu ostean—, eta jakitea ea Udaleko langileren batek datu horietara irispidea izan duen.

Udalak onartu du dokumentazio hori ezarritako epetik kanpo eman dela, eta bi gauza argitu ditu: lehenengoz, web-orriak irispidea interesdunak soilik izan dezala uzten du eta Udaleko langileek irispidea izan dezatela eragozten du; bigarrenez, prozedura informatikoaren funtzionamendua, horren bitartez egiaztatzen baita interesdunak Udalean lan egiten duen, hari informazio espezifikoa emateko.

Beraz, aurkeztutako erreklamazioa baietsi da; izan ere, erakundeak bete egin du eskatutako irispide-eskubidea, baina ez da bete hilabeteko epean, Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan ezarrita dagoenez.

Udalak adierazi duenez, eskariak artatzean denboraren eta epeen kontrola bermatzeko informazio-sistemak hedatzen ari da.

- **Historia klinikoan agertzen diren datu pertsonal batzuetara irispidea izatea (ET20-018)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ez du garaiz eta behar bezala ebatzi erreklamatzaileak egindako eskaria, historia klinikora irispidea izateari buruzkoa. Eskubide hori ez da behar bezala egikaritu eskaria egin eta bost hilabete baino gehiago igaro arte. Horregatik, erreklamatzailearen eskubideen babes-erreklamazioa baietsi da, irispidea izateko eskubidea epez kanpo bete delako.

### 4.1.2. Ezerezteko eskubidea

- **Helbideari eta telefono-zenbakiari buruzko datuak ezereztea Osakidetzaren erregistroan (ET19-046)**

Aurkeztutako erreklamazioa zati batean baietsi da.

Erreklamatzaileak nahi du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan berari buruz dauden datuak (posta-helbidea eta telefono-zenbakia) ezaba daitezela.

Posta-helbidea ezerezteari dagokionez, uzia ezetsi da, informazio hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ustez beharrezkoa baita biztanleriaren osasun- eta laguntza-arloko kudeaketarako. Telefono-zenbakia ezabatzeari dagokionez, erreklamazio hori baietsi da; izan ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ustez informazio hori ez da ezinbestekoa osasun-laguntza kudeatu eta emateko.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak berariaz azaldu duenez, neurri egokiak hartu dira.

Erreklamatzaileak Bulegoan berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du baina ezetsi egin da.

- **Udalean dauden datuetara irispidea izatea, datuak ezereztea eta tratamenduaren aurka egitea (ET19-050)**

Aurkeztutako erreklamazioa osorik ezetsi da. Erreklamatzaileak irispide-eskubidea egikaritu du eta hori Donostiako Udalak behar bezala ebatzi du, garaiz eta behar bezala. Ezerezteko eskatzen denez, eskubide hori ukatu izana Udalak justifikatu du Erregelamendu Orokorraren 17.3 b) eta e) artikulua aplikatuz; horren haritik, aplikatu beharreko araudiaren arabera, datu pertsonalak kontserbatzeko lau urteko epea ezartzen du, zehapen-ebazpen administratiboak jakinarazten direnetik aurrera. Azkenik, eta erreklamatzaileak aurka egiteko eskubidea eskatzen duenez, eskubide hori tratamendu-arduradunaren aurrean egikaritu behar da; arduradunak ez badio jaramon egiten eskariari, orduan kontrol-agintaritzara jo ahalko du, eskubide hori babes dezatela eskatzeko (Erregelamendu Orokorraren 12. artikulua).

- **Merkataritza-erregistro batean dauden datuak ezereztea (ET20-001)**

Erreklamazioa ezetsi da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskumenik ez daukalako, eta erreklamazioa agintaritza eskudunari (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) igorri zaio, ebatz dezan.

- **Polizia-datuak ezereztea (ET20-007)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da; izan ere, erreklamazioa konpontzeko eskatu zitzaion erreklamatzaileari, lehenengo idazkia aurkeztu zuenetik. Ezerezteko beharrezko baldintzak betetzen zituela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar zituen, eta beren-beregi ohartarazi zitzaion eskatu bezala datuak ezerezteko agiri horiek aurkeztea beharrezkoa zela.

Agiri horiek aurkeztu ez zituenez, erreklamazioa ezetsi da, baina ezerezteko eskaria aurkeztu ahalko du berriro organo eskudunean, eta eskariarekin batera eskatutako agiriak, organo horrek zehatz dezan ea ezereztea bidezkoa den ala ez.

Interesdunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du baina ezetsi egin da.

- **Udalaren web-orrian argitaratutako agiri bat ezabatzea (ET20-008)**

Kasu horretan, erreklamatzaileak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan babes-erreklamazioa aurkeztu ostean, eskarian atzera egin zuela uler dadila eskatu du, bere eskubidea bete delako. Kontuan hartzen da eskubide guztiz pertsonala dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 94. artikuluan formalismorik ezaren printzipioa agertzen dela, eta prozedura hartan ukitutako hirugarrenik agertu ez zela; hortaz, atzera egiteko eskaria onartzen da.

- **Historia kliniko bateko datuak ezereztea (ET20-013)**

Erreklamatzaileak eskatu du bere historia klinikoan dauden datuak ezerezteko.

Osakidetzak ezereztea ukatu du eta, horregatik, interesdunak eskubideak babesteko erreklamazioa aurkeztu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Erreklamazio hori izapidetzen den bitartean erreklamatzaileak atzera egin du. Kontuan hartzen da eskubide guztiz pertsonala dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 94. artikuluan formalismorik ezaren printzipioa agertzen dela, eta prozedura hartan ukitutako hirugarrenik agertu ez zela; hortaz, atzera egiteko eskaria onartzen da.

- **Udal baten web-orrian hautaketa-prozesu bati buruz dauden datuak ezereztea (ET20-016)**

Erreklamazioa baietsi egin da, arrazoi formalak tarteko, Elorrioko Udalak erreklamatzailearen ezerezteko eskubidea bete duelako Bulegoak babes-prozedura izapidetzeari ekin ostean.

Bulegoak bere ebazpenean gogora ekarri duenez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15.etik 22. artikulura bitartekoetan ezarritako eskubideak hilabeteko epean bete behar dira, eta betebehar hori urratzea datu pertsonalen babesaren arloko arau-haustea izan daiteke.

Elorrioko Udalak eskubide horiek bermatzeko hartutako neurriak komunikatu ditu.

- **Web-orri batean zenbait datu ezabatzea (ET20-014)**

Eusko Legebiltzarraren web-orrian erreklamatzaileen datu pertsonalak ezerezteko eskubidea ukatu denez, horren aurkako erreklamazioa aurkeztu da.

Erreklamazioa ezetsi da, datu pertsonalen tratamendua jarduera parlamentarioaren barruan egin baita, legearen araberako gardentasun-eginbehar bat betetzeko.

- **Polizia-aurrekariak ezereztea (ET20-015)**

Vitoria-Gasteizko Udalak ez dio erantzun Herritarren Segurtasun Saileko polizia-aurrekarietan agertzen diren datu pertsonalak ezabatzeko eskariari, eta horregatik aurkeztu da erreklamazioa.

Instituzio horrek onartu duenez, eskariari ez zaio erantzun, eta hala komunikatu dio erreklamatzaileari. Horrenbestez, aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan ezarrita dagoen hilabeteko epearen barruan ez baita ebatzi.

- **Polizia-aurrekariak ezereztea (ET20-017)**

Bulegoan erreklamazioa aurkeztu da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean egikaritutako ezerezteko eskubidea ez delako bete.

Kasu honetan, Segurtasun Sailak baiezko erantzuna eman dio eskariari, baina Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan ezarrita dagoen hilabeteko epetik kanpo; beraz, aurkeztutako erreklamazioa baietsi da.

- **Polizia-aurrekariak ezereztea (ET21-007)**

Erreklamazioa ezetsi da, erreklamatzaileak ez duelako aurkeztu eskatu bezala datuak ezerezteko beharrezko dokumentazioa; hala ere, ezerezteko eskatu ahal du berriro organo eskudunean, beharrezko dokumentazioa aurkeztuz.

- **Polizia-datuak ezereztea (ET21-009)**

Kasu horretan, erreklamatzaileak ezerezteko eskubidea 2021eko otsailaren 6an egikaritu zuen, baina eskariak ez zuen erantzun positiborik jaso 2021eko maiatzaren 3ra arte, hau da, Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluak ezarritako hilabeteko epetik kanpo; beraz, planteatutako erreklamazioa formalki baietsi da. Kontuan hartu behar da eskubideak egikaritzeko eskabideen epea luzatzeko aukera Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan arautzen dela, eta tratamenduaren

arduradunak interesdunari luzapen horien berri jakinaraziko diola, hilabeteko epean eskabidea jasotzen denetik, eta luzapenaren arrazoiak azalduko dizkiola. Kasu honetan, ez da halakorik gertatu.

- **Datuak ezereztea udalaren sarrerako eta irteerako erregistroan (ET21-011)**

Leioako Udalak sarrerako eta irteerako erregistro orokor elektronikoan dauden datu pertsonalak ezerezteko eskubidea ukatu egin dio erreklamatzaileari.

Datuak ezereztea ez da bidezkoa, Erregelamendu Orokorraren 17.3 artikuluan ezarritako salbuespenak aplikatu behar direlako.

- **Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan dauden datuak ezereztea (ET21-014)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan ezarritako epearen barruan Partzuergoak ez duelako ezer egin erreklamatzailearen datu pertsonalak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkietan agertzen direnak— ezerezteko.

- **Ezerezteko eskubidea urratzea (PI16-038)**

Erreklamatzaileak 2021eko uztailaren 15ean eskaria aurkeztu zion Arartekoari, bere datuak ezerezteko. Egun hartan bertan, Arartekoak ebazpena eman zuen, eskatu bezala datu pertsonalak ezerezteko.

Instituzio horrek telefono bidez kudeaketa batzuk egin zituen, baina erreklamatzaileak ebazpenaren jakinarazpena ez zuen jaso Erregelamendu Orokorraren 12.3 artikuluan ezarritako epearen barruan; beraz, aurkeztutako erreklamazioa formalki baietsi da.

### 4.1.3. Zuzentzeko eskubidea

- **Historia klinikoa zuzentzea (ET19-057)**

Erreklamatzaileak bere historia klinikoan agertzen diren datu pertsonal batzuk zuzentzeko eskatu dio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari. Aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, arrazoi formalak tarteko, eskaria epez kanpo ebatzi delako, baina erreklamazioa arrazoi materialengatik ezetsi da ez delako bidezkoa eskatutako datuak zuzentzea; izan ere, zuzentzeko eskariarekin batera ez da aurkeztu zuzenketa justifikatzeko agiririk, hori nahitaezko baldintza izanik zuzenketa bat egiteko.

- **Ebazpena zuzentzea (ET20-009)**

Erreklamatzaileak babesa eskatu dio Bulegoari, berak eskatutako zuzenketa Arartekoak ezetsi duelako. Bulegoaren ustez, alde batetik, ez da eskatu datu pertsonalak zuzentzeko, baizik eta pertsona juridiko bati —zehazki, administrazio-organo bati— buruzko informazioak zuzentzeko eta, bestetik, bere ustez, eskatzailearen uzia ezin da eraman zuzentzeko eskubidearen bidetik.

Erregelamenduaren 16. artikuluan agertzen den eskubidea, zuzentzeko eskubidea, ez da ulertzen erantzuteko eskubide gisa edo gertakarien kontakizun zehatz bat onar dadila lortzeko bitarteko den ahal baten gisa; errealitate bat ondoen islatzen duen baieztapena zein den edo hain ondo islatzen ez duena zein den erabakitzea, edo Arartekoaren txosten baten, gogoetak, iruzkin kritikoak eta gomendioak jasotzen dituen baten edukiaren zehaztasunari edo zehaztugabetasunari buruzko irizpena ematea, Bulegoaren babes-ahalmenetatik harago doa.

Interesdunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du bulegoaren ebazpenaren, erreklamazioa ezestekoaren aurka, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Ur-horniduraren titulartasuna zuzentzea (ET20-011)**

Kasu honetan, erreklamatzaileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa eskatu du zuzentzeko eskubidea egikaritzeko, ur partzuergoak ur-horniduraren titulartasuna aldatzeko eskariari ez diolako jaramonik egin. Zuzentzeko eskubidea soilik norberaren titulartasunpeko datu zehaztugabeen gainean egikaritu ahal da, ez hirugarren baten datuen gainean. Horren haritik, bereizi egin behar dira, alde batetik, zuzentzeko eskubidea, datu pertsonalen babesaren arloak berezko duena, eta bestetik hornidurako kontratu baten barruan egindako titulartasun-aldaketaren prozedura; kasu honetan, hain zuzen ere, azken hori gertatu da. Horrenbestez, egindako erreklamazioa ezetsi behar da, ez dagokiolako datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako zuzentzeko eskubideari.

- **Gatazkak Konpontzeko Batzordearen txosten batean dauden datuak zuzentzea (ET21-001)**

Osakidetzaren kontra aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da. Zuzenketa txostenean oker agertzen diren datuei buruzkoa izan behar da, eta erreklamatzailearen uzia ezin da barneratu Erregelamendu Orokorraren 16. artikuluan; Datuak Babesteko Euskal Bulegoak babestu ezin dituen bestelako ondasun juridikoen defentsatik hurbilago dago.

### 4.1.4. Aurka egiteko eskubidea, ezerezteko eskubidea eta tratamendua mugatzeko eskubidea

- **ET21-019, ET21-020, ET21-021, ET21-022, ET21-025, ET21-031, ET21-032, ET21-033, ET21-034, ET21-037, ET21-040, ET21-041, ET21-042, ET21-043, ET21-044**

Espediente horietan guztietan Datuak Babesteko Euskal Bulegoak erreklamatzaileari eskatu dio aurkeztutako erreklamazioak konpon ditzala. Erreklamatzaileak, gerora, erreklamazio guztiei uko egin die eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uko egin izana onartu du, eskubide guztiz pertsonala egikaritzean datzalako.

- **ET21-023, ET21-024, ET21-026, ET21-028, ET21-029, ET21-030**

Eskubideak babesteko erreklamazio horiek guztiak amaitzeko, ez onartzeko ebazpena eman da, Erregelamendu Orokorraren 12. artikuluaren arabera Bulegoan babesa eskatzeko ezarritako epea hasi aurretik aurkeztu direlako.

Erreklamatzaileak espedienteen ebazpen guztien aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtsoak ezetsi dira.

- **ET21-039, ET21-047, ET21-050, ET21-051, ET21-052, ET21-053, ET21-054, ET21-056, ET21-057, ET21-064**

Eskubideak babesteko erreklamazio horiek guztiak ezetsi dira.

Erreklamatzaileak Administrazio batzuetan eta bestetan eskubideak babesteko eskabideak aurkeztu ditu, eta organo eskudunak (tratamenduaren arduradunak) legez ezarritako epean ebatzi egin ditu; jakinarazi duenez, ez da agertzen erreklamatzailearen daturik (beraz, ezin dira tratatu).

Erreklamatzaileak ET21-039 espedientearen ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtso hori ezetsi da.

### 4.1.5. Ahaztua izateko eskubidea

- **Interneteko bilaketa-tresna batean datu pertsonalak desindexatzea (ET21-010)**

Erreklamatzailearen eskariaren helburua da Googlek desindexa dezala Osakidetzaren zerrenda bat, zeinaren bidez haren NAN osoa lortu ahal baitu bilaketa-tresnan haren izen-abizenak idazten dituen edonork; izan ere, hori datuen tratamendu desegokia eta gehiegizkoa da, Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluko minimizazio-printzipioa aplikatuta.

Bilaketa-tresna batean desindexatzeko eskubide hori 3/2018 Lege Organikoaren 93. artikuluan onartzen da, eta eskubide horrek lehentasuna dauka, loturaren jatorrizko webgunean argitaratutako informazioa kontserbatzea zilegia izan arren. Horrenbestez, Osakidetzak ez du zertan zerrenda hori bere web orritik ezabatu, web orri horretan hautaketa-prozesuan parte hartu duten pertsonek soilik baitute irispidea informazio horretara; Googleren bilaketa-tresnan, aldiz, erreklamatzailearen izen-abizenak sartzen dituen edozeinek haren NAN osoa ikus dezake, baita hautaketa-prozesuan parte hartu duten gainerakoen NANak ere, nahiz eta hautaketa-prozesu horretan parte hartu ez.

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi du Bulegoak, eta Osakidetzari errekerimendua egin zaio, Googleri eska diezaion erreklamatzailea agertzen den agiria ezabatzeko.

Erreklamatzaileak beste eskari bat aurkeztu du, Osakidetzak ez duelako bete emandako ebazpena; horren ostean, Bulegoak errekerimendua egin dio entitateari, berehala burutu eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eta interesdunari jakinarazi diezaieten. Errekerimendu hori egin ondoren, Osakidetzak eskaria bete du eta bilaketa-tresnan datuak desindexatu dira.

## 4.2. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, Euskal Administrazio edo Instituzio Publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, arau-hausteak dira.

Onartutako salaketak arau-hauste prozedura bihurtu dira edo artxibatu egin ditugu, ez dagoelako prozedura hori hasteko nahikoa arrazoirik.

### 4.2.1. Onartu gabeko salaketak

2020an eta 2021ean salaketa ugari ezetsi ditugu, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko entitateei buruzkoak direlako, eta halakoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontroletik kanpo daudelako. Halakoak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali ditugu (DN19-067, DN20-009, DN20-010, DN20-013, DN20-014, DN20-015, DN20-016, DN20-017, DN20-024, DN21-031, DN21-034, DN21-037, DN21-041, DN21-042, DN21-050).

Gainera, xede jurisdikzionalekin egindako datu-tratamendu bati buruzko salaketa bat ez da onartu, eskumenik ez izateagatik; salaketa hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igorri zaio (AP20-002).

Azkenik, DN21-012, DN21-013 eta DN21-051 salaketak ez dira onartu, datu pertsonalen babesarekin zerikusirik ez duten gaiak ukitzen dituztelako.

### 4.2.2. Artxibatutako salaketak

- Historia klinikora bidegabeko irispidea izatea (DN19-054)

Erreklamatzaileak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu du, «administrarien eta administrazioko goi-mailako titularren maila duten profesionalek eta goi-mailako beste tituludun batzuek» bere historia klinikorako irispidea izan dutelako bere adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe.

Espedientean dauden agirietatik ondorioztatzen denez, erreklamatzailearen historia klinikora ez da irispiderik izan modu bidegabean; aitzitik, langile ez-sanitarioek, «administrarien eta administrazioko goi-mailako titularren maila duten profesionalek eta goi-mailako beste tituludun batzuek» irispidea izan dutenean euren eginkizunen barruan izan dituzte, xedatuta baitago historia klinikorako irispidea langile sanitarioek osasun-xederako ez ezik beste xede batzuetarako izan dezatela, kasu honetan osasun-zerbitzuak fakturatzeko, eta horrez gain langile ez-sanitarioek ere, esate baterako administrazioko langileek.

Horregatik, erreklamazioa artxibatu da, irispide guztiak behar bezala justifikatuta egon direlako.

Interesdunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du (RR20-002) baina ezetsi egin da.

- **Euskadiko irakurketa publikoko sarearen erabiltzaile guztien datuetara irispidea izatea (DN19-062)**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurkako salaketan honako gertakari hauek azaltzen dira: Euskadiko irakurketa publikoko sareak Euskadiko liburutegi publiko guztien datuak elkarrekin konektatzeko sistema dauka. Horrek esan nahi du edozein funtzionariok edozein erabiltzaileren datuak kontsultatu ahal dituela; hala, erabiltzaileen pribatutasuna urratzen da argi eta garbi.

DBEBk bere ebazpenean adierazten duenez, Euskadiko liburutegi publiko guztien datuen interkonexiorako sistema bat edukitzean bete egiten da euskal legegileak urriaren 26ko 11/2007 Legean, Euskadiko Liburutegiei buruzkoan ezartzen duen agindua. Arau horren arabera, Eusko Jaurlaritzan kultura-arloko eskumena duen sailak ahaleginak egingo ditu Euskadiko Liburutegi Sisteman sartzen diren kideek aukera izan dezaten politika bateratuei ekiteko, informazioa trukatzeko, liburutegien arteko maileguak koordinatzeko, edukiak sistema digitaletara edo bestelako euskarrietara pasatzeko prozesuak planifikatzeko, liburutegi-ikerketak egiteko eta liburutegietan informaziorako eta komunikaziorako irispidea izateko zerbitzuak garatzeko. Lege-xedapen horren arabera eta, oinarrizko eskubidea urratzeari buruzko zantzu nahikorik ez dagoela kontuan hartuta, DBEBk salaketa artxibatu du.

- **Bideozaintzako kamerak jartzea Ertzain-etxean (DN19-065)**

Egindako erreklamazioa artxibatu da; izan ere, burututako jarduerak ikusita, Bulegoaren iritziz salatutako administrazioari ezin zaio egotzi datu-babesaren esparruko arau-hauste bat egozteko moduko gertakaririk.

Salatutako kameren xedea da pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzea, eta zantzuak ikusita ezin da ondorioztatu kameren xedea ertzainen laneko jarduera kontrolatzea denik.

Kamera horien helburua da atxilotutako pertsonen segurtasuna babestea eta ertzainen lanari buruz kexa edo salaketa faltsurik egin ez dadila bermatzea. Horren haritik, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorrean, poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoan azaltzen denez, grabazioek poliziaren bulegoko gela, atxiloketa-eremu eta polizia-agenteen eta atxilotuaren arteko elkarrekintzak gertatzen diren leku guztiak barne hartu behar dituzte.

- **Gizarte Funtsari buruzko datuak argitaratzea web-orri batean (DN19-069)**

Salatzen denez, Hezkuntza Sailaren web-orrian baietsitako eta ezetsitako eskari batzuen zerrenda argitaratu da, eta eskatzaileak izenarekin eta bi abizenekin identifikatzen dira, ez soilik NANaren zenbakiarekin, aurreko deialdietan hala egin den arren.

Salaketa artxibatu da, arrazoi honengatik: prozedura hori norgehiagokaren printzipioaren mendean dagoenez, Hezkuntza Sailak Gizarte Funtsaren laguntzaren onuradunak izen-abizenekin identifikatu ditu, besterik gabe, baina ez du zehaztu zein laguntza-modalitate eskatu duten; datuen minimizazioaren printzipioa aplikatuta, horrek esan nahi du argitalpen horrek errespetatu egiten duela erreklamatzailearen pribatutasunerako printzipioa. Gainera, gardentasunaren ikuspuntutik, kontuan hartu beharko litzateke honako hau: Hezkuntza Sailaren web-

orrian Gizarte Funtsaren laguntzaren eskaria onartuta duten pertsonen nortasuna argitaratzean bete egiten da abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

- **Bideozaintzako kamerak jartzea udal kiroldegi batean (DN20-001)**

Udal kiroldegi bateko muskulazio-aretoan bideokamerak instalatu izana salatu da.

Salaketa artxibatu da, bideokamera horiek instalatuz ez direlako urratzen Erregelamendu Orokorrean jasotako printzipioak, zehazki datuak minimizatzearen printzipioa eta helburua mugatzearena ezta, biak batera hartuta, datuen proportzionaltasunaren printzipioa ere. Muskulazio-aretoan gertatutako kalte batzuk kontuan hartuta, eta ondasunen segurtasuna zaintzeko helburuz, uste da irudien tratamenduak proportzionaltasunaren printzipioaz harago doazela, eta gailu horiek ezin direla kasu batean ere erabili bestelako helburuekin.

- **Zenbait osasun-datu lagatzea adostasunik gabe (DN20-004)**

Salatu denez, trafiko-unitate bateko Buruzagitzak bere nagusi hurrena den Ertzaintzaren Buruzagitzari txosten bat bidali dio. Txosten horretan aldi baterako bajen datuak eta iraupenak azaltzen dira, baina salatzaileak ez du adostasunik eman, eta ez du izan horren berririk.

Salaketa artxibatu da; izan ere, salatutako datu pertsonalen tratamendua geroago diziplina-prozedura bat irekitzeko arrazoi izan diren gertakari batzuk argitzeko egin da, eta horretarako oinarri legitimoa dago.

- **Bizkaiko Psikologia Elkargoak COVID-19arengatiko konfinamendu-egoeran eskaini duen Psikobizi zerbitzuak datuak lagatzea (DN20-012)**

Salatzen denez, zerbitzu horretako profesional batek zerbitzuaren erabiltzailearen datu pertsonalak entitate laguntzaile bati laga zizkion, telefono bidezko laguntza psikologikoa emateko.

Salaketa artxibatu da, erreklamatzailea bera jarri baitzen harremanetan entitate laguntzailearekin, PSIKOBIZI zerbitzuaren jarraibideen arabera. Eta entitate horrek, Elkargo Ofizialarekin egindako akordioa betetzeko, irispidea izan zuen PSIKOBIZI zerbitzuak emandako datuetara, zerbitzu horretako profesionalak egindako hasierako esku-hartzeari buruzko datuetara, alegia, eskatutako laguntza psikologikoa ematen jarraitu ahal izateko.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (DN20-021)**

Erreklamatzaileak salatu du bere historia klinikora bidegabeki izan zutela irispidea birritan 2013an, adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe.

Azken aldiz 2013ko urriaren 23an izan zuten irispidea, eta une hartan hasi zen balizko arau-hauste baten preskripzio-epea. Salaketa, berriz, ustezko arau-haustea gertatu eta hiru urte baino gehiago igarotakoan aurkeztu da, eta edozein kasutan,

horregatik ezinezkoa da arau-hausteagatiko prozedura irekitzea, preskripzioa dela-eta.

- **Ama hiltzeagatik hirugarrenei hainbat gauza agerraraztea, adostasunik gabe (DN20-027)**

Salatu da udal batek hirugarren pertsona batzuei komunikatu dizkiela hildako amaren datu pertsonalak, zehatzago esatearren heriotzaren zergatia.

Salaketa artxibatu da ez delako frogarik aurkeztu, ezta zantzu bidez ere, salaketan kontatzen denari gutxieneko oinarri bat emateko, udalak datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen aurka ustez egin duen jarduketari buruz, eta kontuan hartuta oinarrizko eskubide horri buruzko araudia ez zaiola aplikatzen hildako pertsonen datu pertsonalen tratamenduari.

- **Hildako pertsona baten historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (DN20-007)**

Erreklamatzaileak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu du, «administrarien eta administrazioko goi-mailako titularren maila duten profesionalek eta goi-mailako beste tituludun batzuek» hildako pertsona baten historia klinikorako irispidea izan zutelako adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe.

Espedienteko agirietatik ondorioztatu denez, profesional horiek irispidea izan zutenean euren eginkizunen barruan izan zituzten, xede judizialekin. Horregatik, salaketa artxibatu da, irispide guztiak behar bezala justifikatuta egon direlako.

- **Telefono-zenbakia modu bidegabean erabiltzea (DN20-023)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, Covid19aren arakatzaile batek senide baten telefono-zenbakia erabili zuelako harremanetan jartzeko, haren telefono-zenbakia erabili beharrean. Hala ere, espedientean froga egindakoan egiaztatu denez, arakatzaileek telefono-zenbaki egoki bat erabili zuten, Osakidetzaren datu-baseetan harremanetan jartzeko zenbaki gisa ageri baitzen, hau da, Osakidetzak eskura zeuzkan bitartekoak erabili zituen paziente bat aurkitzeko eta soilik horretarako. Paziente hori ezin izan zuten aurkitu telefono mugikorraren bitartez eta, gaixotasun kutsakor bat izanik, harremanetarako telefono-zenbaki gisa ageri zen telefono finkora deitzea erabaki zen.

- **Datuak Babesteko Euskal Bulegoak arau-hauste prozedura batean emandako ebazpena ez betetzea (DN20-025)**

Erreklamatzaileak Osakidetza-Euskal Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu du, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak arau-hauste prozedura batean emandako ebazpena ez betetzeagatik.

Hala ere, espedientean froga egindakoan egiaztatu denez, ez zen ezer ere urratu, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ebazpena hiru egun geroago bete baitzuen, aldeei jakinarazi ostean. Beraz, salaketa artxibatu da.

Interesdunak ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtsoa ezetsi da.

- **Hirugarren bati zor bat komunikatzea (DN21-001)**

Egindako jarduketetan ez da ikusi Bizkaiko Foru Aldundiari datuen babesaren arloko arau-hauste bat egozteko moduko gertakaririk, salatutako datu-tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa dagoelako. Beraz, jarduketa horiek artxibatu dira.

- **Kamerak eta poliziaren ibilgailuetan GPSak jartzea (DN21-002)**

Ermuko Udaltzaingoaren bulegoetan bideozaintzako kamerak instalatu izana eta poliziaren ibilgailuetan geolokalizazio-sistema bat (GPS) instalatu izana salatu da.

Aurkeztutako salaketa artxibatu da, Udalak legitimazioa daukalako lan-arloko kontrola eta ondasun eta pertsonen segurtasuna helburu duten tratamendu horietarako; gainera, interesdunei aldez aurretik informazioa eman zien, bi kontrol-sistema horiek jartzeari buruz.

- **Udaltzainen posta elektronikoa (DN21-003)**

Ermuko Udaltzaingoak erabiltzen duen posta elektronikoa desegokia dela salatu da, helbideek agenteen nortasuna agerian jartzen dutelako.

Udalak alegatu duenez, poliziako agenteek gaur egun bi motatako posta elektronikoa daukate: bata, barneko izapideetarako, izenaren eta abizenaren inizialekin osatua; eta bestea, kanpoko zereginetarako, agenteak identifikatu ez daitezen.

Udalaren web orrian Udaltzaingoko agenteen datu pertsonal bat ere agertzen ez dela eta posta elektroniko orokorra (udaltzaingoa@udalermua.net) soilik agertzen dela egiaztatu ostean, salaketa artxibatu da.

- **Datuak lagatzea hirugarren bati (DN21-004)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, bere datuak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari bidegabeki lagatzeagatik.

Espedientean dauden agirietatik ondorioztatzen denez, Osakidetzaren Arabako Osasun Mentaleko Sarearen Kudeaketako Zuzendaritzak egindako komunikazioak legitimazioa izango luke Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 170.4 artikuluan, Erregelamendu Orokorraren 9.2.h) artikuluarekin lotuta, eta orokorrean Erregelamendu Orokorraren 6.1 c) artikuluan, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak kontingentzia zehaztearen helburu legitimoa bete ahal izan dezan. Horregatik, jarduketak artxibatu dira.

Interesdunak ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta errekurtsoa ezetsi da.

- **Zerga-arloko datuen tratamendua (DN21-006)**

Pertsona batek salatu du Bizkaiko Foru Aldundiak bere datu pertsonalak tratatu zituela adostasunik izan gabe.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du salatzailearen adostasunik eskatu behar haren zerga-arloko datuak tratatzeko, tratamendu horrek lege-oinarri bat daukalako, fiskalitate-arloan daukan eskumena egikaritzea, alegia: gainera, tratamendua egiteko, aurretiaz fiskalitateari buruzko foru arauak berak eskatzen duen baldintza bete da, eta arrazoi horregatik salaketa artxibatu da.

Erreklamatzaileak artxibatzeko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (DN21-007)**

Aurkeztutako salaketan, erreklamatzaileak dio Osakidetzak haren historia klinikora batzuetan irispidea izateko emandako azalpenak funtsik gabeak zirela; beraz, irispidea bidegabeki izan zela ulertzen du. Osakidetzak, berriz, onartu egin du irispide eztabaidagarri horiek, zeinetan «informatikako teknikaria» ageri baita lanbide-kategoria gisa, hutsegite batengatik gertatu zirela, erreklamatzailearen lehen mailako arretako medikuari alta eman zitzaiolako sistema informatikoan, eta hutsegite hori konpondu zela. Azalpen horien ostean, salatzaileak ez du alegaziorik aurkeztu bere baieztapenen oinarri gisa; beraz, zantzuen aldetik ez dago justifikaziorik zehapen-espediente bat izapidetzeko.

- **DN21-009 Hautaketa-prozeduretan datuak argitaratzea**

Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedura bat izapidetzean, Pasaiako eta Amorebieta-Etxanoko Udalek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ebazpen bat argitaratu dute, zeinaren eranskinean ikaslearen izen-abizenak, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa eta aukeratutako lantokia ageri baitira. Udal horien aurkako salaketa aurkeztu da, datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik.

Ebazpen hori argitaratzeko eginbeharra urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 45. artikulutik sortzen da. Beraz, tratamenduaren oinarri legitimatzailea lege-eginbehar bat betetzea da, Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko legegileak, apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan publizitate aktiboa arautzean, toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioari dagokionez, gardentasunari buruzko gutxieneko betebehar batzuk ezartzen ditu, besteak beste publiko egitea enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak -deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne-.

Hala ere, minimizazioaren printzipioa nahitaez bete beharrezkoa denez, ahal dela ez da gehiegizko informaziorik argitaratu behar, adibidez NAN osoa. Erreklamazioaren xede den tratamenduan ez da halakorik gertatu eta, beraz, salaketa artxibatu da.

- **Datu pertsonalak komunikatzea adostasunik gabe (DN21-010)**

Salatu denez, Donostiako Udalaren osoko bilkuraren batzorde batean zinegotzi batek erreklamatzailearen identifikazio-datuak publiko egin ditu, haren adostasunik gabe.

Salaketa artxibatu da, Bulegoaren ustez salatutako datu-tratamendua kargu publikodun horrek udal batzordean egin duelako, udal gobernuaren barruko zereginak egikaritzean egindako kudeaketen berri emateko.

Erreklamatzaileak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du artxibatzeko ebazpenaren aurka, eta errekurtsoa ezetsi da, uste delako Administrazioaren jarduketa, salatutako hori, bat datorrela datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeriarekin.

- **Tratamenduaren eragilea (DN21-011)**

Artxibatu egin da aurkeztutako salaketa, administrazio-jakinarazpen bat egiteko salatzailearen datu pertsonalak hirugarren bati modu ez-zilegian laga izanagatik aurkeztu dena. Egindako jarduketak ikusita, egiaztatuta geratu da salatutako tratamendua Ur Partzuergoak sinatutako mandatuaren arabera egin dela.

- **Eusko Legebiltzarrari datu medikoak komunikatzea (DN21-016, DN21-017, DN21-018 eta DN21-025)**

Segurtasun Sailaren aurkako salaketa aurkeztu da, salatzaileen datu medikoak Eusko Legebiltzarrari komunikatzegatik.

Espedientean agertzen diren jarduketak aztertutakoan, honako hau egiaztatu da: Pazientearen Identifikazio Zenbakiari, NANari eta izen-abizenei buruzko datuak bereizi ditu tratamenduaren arduradunak, Eusko Legebiltzarrari igorri aurretik, eta igorritako informazioak ez du biderik ematen salatzaileak identifikatzeko, salatzaileei dagokien Ertzaintzako agenteen taldea edo azpitaldea aipatzean.

Salatutako datu pertsonalen komunikazioak oinarri legitimatzailea dauka: Erregelamendu Orokorraren 6.1 c) artikulua, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 25. artikuluarekin eta Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 11. artikuluarekin lotuta.

- **Datu pertsonalak komunikatzea adostasunik gabe (DN21-027)**

Salaketa aurkeztu da Segurtasun Sailaren aurka, Izenperi datu pertsonalak ustez modu ez-zilegian komunikatu zaizkiolako salatzailearen ziurtagiri profesionala egiteko.

Salaketa artxibatu da, egiaztatuta geratu baita datuen halako komunikaziorik ez dela gertatu. Nolanahi ere, tratamendu horrek legitimazioa dauka Erregelamendu Orokorraren 6.1e) artikuluan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari buruzkoaren 14.2 e) artikuluarekin lotuta.

- **Datuetara irispidea izateko eskubidea epez kanpo betetzea (DN21-028)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, bere historia klinikora irispidea izateko eskari bati epez kanpo erantzun diolako.

Salatu bezala epez kanpo bete izana Bulegoak lehenago ere deklaratu zuen, erreklamatzaileak eskatuta hasitako eskubideen babes-prozeduran Ebazpena eman zuenean; beraz, egindako jarduketetatik ez da ondorioztatu salatutako instituzioak datuen babesaren arloko arau-hauste bat egozteko moduko ezer egin duenik.

- **Osasunari buruzko datuak komunikatzea (DN21-035)**

Osasun Administrazioari salaketa aurkeztu zaio, Segurtasun Sailari osasun-datuak komunikatzeagatik, Ertzaintzako agenteek Covid19an positibo izandako herritarrak nahiz bizileku berean zeuden pertsonak identifika ditzaten.

Salaketa artxibatu da, salatutako datu-tratamenduak oinarri legitimatzailea nahikoa daukalako Erregelamendu Orokorraren 9. artikuluko 2. zenbakiko g), h) eta i) apartatuetan, oinarri horrek lotura daukala apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoaren 2. artikuluarekin, Osasun Publikoari buruzko Lege Orokorraren 52.4 artikuluarekin eta ekainaren 24ko 2/2021 Legearen, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoaren 1., 18. eta 19.2 artikuluekin.

- **Historia klinikoa hainbat aldiz bidegabe atzitzea (DN21-039)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, bidegabe eta hainbat aldiz bere historia klinikora irispidea izan zutelako, adostasunik gabe eta lege gaikuntzarik gabe.

Azken aldiz, ustezko arau-haustea gertatu zen egunetik hiru urte baino gehiago igarotakoan izan zen irispidea, eta horrexegatik aurkeztu da azken salaketa. Nolanahi ere, horregatik ezinezkoa da arau-hausteagatiko prozedura irekitzea, preskripzioa dela-eta.

- **Udalaren osoko bilkuraren bileran informazioa zabaltzea (DN21-044)**

Erreklamatzaileak salatu duenez, Gorlizko Udalaren osoko bilkurak telematikoki egindako bilera batean, zinegotzi batek bere hitzaldian erreklamatzailearen lantokia publikoki aipatu zuen. Bulegoak erreklamazioa artxibatu du, arrazoi hau emanda: salaketaren jatorri den hitzaldia entzundakoan, arrazoizko modu batean uler daiteke zinegotziak, hitzaldi horretan, adibide gisa leku zehatz batzuk aipatu

zituela, une hartan eztabaidagai zen udal programa bati atxikitako udal batzuekin lotutako leku batzuk, alegia.

### 4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Halako zehapen-prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta instituzio publikoei irekitzen zaizkie, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela.

3/2018 Lege Organikoan (77.2 artikulua), garai batean Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan bezalaxe, Administrazio eta Instituzio Publikoentzat ez da zehapen ekonomikorik ezartzen. Prozedura horiek amaitzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, ohartarazpen-zehapena ezartzea eta neurri zuzentzaileak hartzeko errekerimendua egitea.

2020an 19 arau-hauste prozedura berri hasi dira eta 24 ebatzi dira. Emaitza honako hau izan da: hemeretzi arau-hauste oso astun eta bi astun deklaratu dira, eta hiru prozedura artxibatu dira.

Bestalde, 2021ean 17 arau-hauste prozedura berri hasi dira eta 12 ebatzi dira. Emaitza honako hau izan da: hemeretzi arau-hauste oso astun deklaratu dira, baita arau-hauste astun bat ere, eta bi prozedura artxibatu dira.

- **Segurtasun falta Hizkuntza Eskola Ofizialera sartzeko gakoetan (PI19-018)**

Hizkuntza Eskola Ofizialaren matrikulaziorako eta kudeaketa akademikorako aplikazioak bidea ematen zuen erabiltzaileen datu pertsonaletara irispidea izateko, NANaren edo AIZren zenbakia eta agiri horien iraungitze-data jakinda.

Administrazioari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan jasota dagoen tratamenduaren segurtasuna urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.4.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 73.f) artikuluak arau-hauste astuntzat jotzen du.

Kasu horretan ez da eskatu neurri zuzentzailerik hartzeko, neurri horiek administrazioak lehenago hartu dituelako.

- **Datu pertsonaletara irispidea izatea bidegabeki (PI19-021 eta PI19-022)**

Ertzaintzako kide batek eta bere emazteak salaketa aurkeztu dute, kidegoko beste kide batek haien datu pertsonaletara irispidea izan duelako bidegabeki. Salatutako irispideak ez daude justifikatuta polizia- edo administrazio-jarduketengatik.

Segurtasun Sailari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan jasota dagoen zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.b) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Segurtasun Sailak ez ditu komunikatu hartutako neurriak.

- **Historia klinikoaren zati bat galtzea (PI19-026)**

Erreklamatzaileak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu du, bere historia klinikoko neurologia-txosten batzuk desagertu direlako.

Hala ere, espedientean dauden agiriak eta espedientean egindako frogak aztertutakoan, egiaztatu da salatzailearen historia klinikoan egon daudela ustez desagertutako agiriak; beraz, prozedura artxibatu da.

- **Udaltzain batek agiri konfidentzial batera irispidea izatea bidegabeki (PI19-027).**

Vitoria-Gasteizko Udalaren aurkako salaketa hau aurkeztu da: Udaltzaingoaren Zerbitzuko kide batek polizia-interbentzioko fitxa baten kopia murriztu batera irispidea izan du eta gerora helburu partikularretarako erabili du. Udalak gertakariak onartu ditu, eta arau-haustearen prozedura hasteko erabakiaren aurka ez da alegaziorik aurkeztu.

Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1. a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zaio antolakuntzako barneko neurri egokiak hartzeko eta horren berri emateko, prozedura honetan azaldutakoen antzeko gertakaririk ez dadin berriro gertatu.

Udalak ez ditu jakinarazi hartutako neurriak.

- **Adingabe baten datu zehaztugabeak Biztanleriaren Erregistro Estatistikoan (PI19-028)**

Kasu honetan, erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du bere seme adingabearen datuak tratatzeagatik; Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko biztanleria etorkinaren gaineko inkestan jaso dute, hain zuzen ere, datu horien laginak EUSTATek hartu baitzituen.

EUSTATi ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.d) artikuluan jasotako osotasunaren eta zehaztasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1. a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zaio neurri egokiak hartzeko eta horren berri emateko, etorkizunean Erregelamendu Orokorraren 5.1 a) artikuluan jasotako zehaztasunaren printzipioa ez dadin berriro urratu.

EUSTATek ez ditu jakinarazi hartutako neurriak, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du Bulegoaren ebazpen zehatzailearen aurka.

- **Salatzailearen identitatea komunikatzea salatuari (PI19-030)**

Herritar batek Hernaniko Udalean salaketa aurkeztu du eraikin baten fatxadaren egoera txarra dela-eta.

Salaketa jaso ostean, udal teknikari batek eraikinean bisita egin du eta fatxadan arriskutsuak izan litezkeen zenbait elementu detektatu ditu. Horrenbestez, Udalak eraikinaren jabeen azpierkidego bakoitzari betearazpen-aginduaren Dekretua bidali dio.

Eraikinaren jabeen azpierkidego batek eskatuta, Udalak salaketaren kopia igorri du, zeinean salatzailearen izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono mugikorraren zenbakia, helbidea eta sinadura ageri baitira.

Kasu honetan, interesdun den azpierkidegoari salatzailearen datu pertsonalak agerrarazi izana ez da beharrezkoa ezta garrantzitsua ere, ezta kaltegarria ere haren defentsarako eskubiderako.

Horregatik, Bulegoak Hernaniko Udalari ohartarazi dio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1. f) artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 i) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak komunikatu egin ditu hartutako neurriak.

- **Ikasleek lortutako notak posta elektroniko bidez bidaltzea (PI19-031)**

Musika Kontserbatorio Profesionaleko irakasle batek bere ikasle guztiei posta elektroniko bidez eta ezkutuko kopiarik gabe jakinarazi dizkie irakasgaian lortutako notak.

Informazio hori oinarri juridiko legitimatzailerik gabe komunikatu izana datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen urraketa bat da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan jasotzen den eta 3/2018 Lege Organikoaren 5. artikuluan ere azaltzen den konfidentzialtasunaren printzipioa urratzen duelako. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 73.g) artikuluak arau-hauste astuntzat jotzen du.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (PI19-032)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka salaketa aurkeztu da, ospitaleko bateko biltegi batean dagoen iragarki-oholean erreklamatzailearen lan-karteldegia argitaratzeagatik, lan-karteldegi horretan haren izena, abizenak, langile-zenbakia eta laneko egunak ageri baitira.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 5.1.a) artikuluan jasotako zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntzako neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten denaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurriak.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (PI19-033)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu da, historia klinikora modu bidegabean irispidea izateagatik.

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboek eta administrazioko eta kudeaketako langileek erreklamatzailearen historia klinikora irispidea izan zutela eta horretarako ez zegoela justifikaziorik laguntza- edo administrazio-jarduketa batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntzako neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurriak.

- **Osasun-datu gehiegi tratatzea (PI20-001)**

Erreklamatzailea ospitale bateko larrialdietatik bideratu dute, eta anbulatorio bateko harrerara joan da, espezialista batekin hitzordua eskatzeko. Larrialdietako txostenean interesdunari emandako agiri guztiak fotokopiatu dituzte administrazioko langileek. Erreklamatzailea tratamendu horren aurka dago, agiri horiek lehendik bere historia klinikoan daudelako.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntzako neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten denaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurriak.

- **Lanpostuan egon ez izanaren arrazoia agerraraztea (PI20-002)**

Erreklamatzaileak, udaltzain batek, Udalaren aurkako salaketa aurkeztu du, baliatu duen aitatasun-baimena zerbitzukoak ez diren langileek ikusi dutelako arrazoi justifikaturik gabe.

Hasitako zehapen-prozedura artxibatu da, prozedura hori instruitu ondoren ez delako egiaztatuta geratu salatutako gertakaria.

- **Iragarki-oholean argitaratzea hautaketa-prozesu batean parte hartu dutenen izena, abizenak eta NANa (PI20-003)**

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundearen iragarki-oholean hautaketa-prozesu baten epaimahai kalifikatzailearen erabakia argitaratu da.

Erabaki horren bidez deialdia egin zaie pertsona jakin batzuei, eta pertsona horiek izen-abizenekin eta nortasun agiri nazionalaren zenbaki osoarekin identifikatu dira.

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundeari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa eta 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian azaltzen dena urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zaio barneko antolakuntzako neurri egokiak hartzeko eta horren berri emateko, prozedura honetan azaldutakoen antzeko gertakaririk ez dadin berriro gertatu.

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta Larrialdiak erakundeak ez ditu jakinarazi hartutako neurriak.

- **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpena ez betetzea (PI20-005)**

Osakidetza-Euskal Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lehengo prozedura batean emandako ebazpena ez betetzeagatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 83.6 artikulua urratzeagatik, arau-hauste oso astuna delako, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 72.1 m) artikuluaren arabera; halaber, errekerimendua egin zaio, hamar eguneko epean Bulegoak lehenago emandako ebazpena zorrozki betetzeko beharrezko neurriak har ditzan.

Ente publikoak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurriak.

- **Osasun-arloko datuak minimizatzearen printzipioa urratzea (PI20-006)**

Erreklamatzaileak Gatazken Batzordean idazki bat aurkeztu du. Idazki hartan bere egoera fisiko eta psikoemozionalari eta bere inguruabar pertsonalei eta lanbide-inguruabarrei buruzko informazioa agertzen da. Bulegoan salatu duenez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak idazki hori oso-osorik igorri dio gatazkaren beste aldeari.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du ebazpenaren aurka.

- **Historia klinikorako irispidea bidegabeki izatea (PI20-007 eta PI20-016 metatuak)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu da, langile fakultatiboek eta administrazioko eta kudeaketako langileek ukituaren historia

klinikora irispidea izan dutelako ukituaren adostasunik gabe eta irispide horietarako ez dagoelako justifikaziorik laguntza- edo administrazio-jarduketa batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntzako neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten denaren arabera.

Ente publikoak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurriak.

Erreklamatzaileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean eta berraztertzeko errekurtso hori ezetsi da.

- **Udaltzain baten telefono mugikor batekin herritar baten NANari argazkia egitea (PI20-009)**

Bilboko Udaltzaingoko agente batek salatzailearen NANari argazkia egin dio bere telefono mugikor partikularrarekin, salaketa-akta bat izapidetzeko helburuz.

Prozedura honen xede den kasuan datu pertsonalen tratamendua dago (salatzailearen NANari argazkia egitea); tratamendu hori Bilboko Udaltzaingoko agente batek egin du bere telefono mugikor partikularraren bidez. Salaketa-akta bat izapidetzea da helburua, helburu legitimoa, eta hori betetze aldera Udaltzaingoak legitimitatea dauka salatzailearen NANa eskatzeko; hala ere, argi dago tratamendu horretarako erabilitako bitartekoak ez dituela betetzen Administrazio Publiko bati eskatu behar zaizkion segurtasun-eskakizunak.

Bilboko Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Salatzaileak errekurtsoa aurkeztu du, ez dagoelako ados Bulegoaren ebazpenarekin. Bere ustez, Bilboko Udalari zehazpen ekonomikoa ezarri beharko litzaioke eta udaltzainari diziplina-espedientea irekitzeko eskatu beharko litzateke.

Errekurtsogilearen irizpidearekin ez gatoz bat. Izan ere, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoan araubide berezia ezartzen da Administrazio Publikoentzat eta Lege horren 77.1 artikuluan ezartzen diren gainerako instituzioentzat. Hain zuzen ere, horiei zehapena ezartzeko, ohartarazpena eta neurri zuzentzaile egokiak erabiliko dira.

Bestalde, errekurtsoaren xede den ebazpenean azaltzen denez, diziplina-erantzukizunik egoteko, salatutako urraketa nahita egin beharko litzateke, baina kasu honetan argi eta garbi ez da hala gertatu; beraz, kasu honetan ez da egiaztatu zantzurik dagoenik urraketa nahita gertatu zela, hau da, diziplina-arloko

erantzukizuna dagoela ondorioztatzeko, eta ez da bidezkoa halako jarduketak hastea.

Beraz, aurreko guztia ikusita, Bulegoak ezetsi egin du aurkeztu duten berraztertzeko errekurtsoa, eta berretsi egiten da errekurritutako ebazpena zuzenbidearen araberakoa dela.

Udalak komunikatu egin ditu hartutako neurriak.

- **COVID-19ak sorrarazitako osasun-alertako egoeran aldi baterako ostatuetan hartutako pertsonentzako gizarte-laguntzako zerbitzua emateari buruz informaziorik ez ematea (PI20-010)**

Bilboko Udalak ez du egiaztatu COVID-19ak sorrarazitako osasun-alertako egoeran aldi baterako ostatuetan hartutako pertsonentzako gizarte-laguntzako zerbitzua emateari buruzko informazioa ematearen eginbeharra bete duenik.

Datuen tratamenduaren arduradunek interesdunari adierazi behar diote zein tratamendu egingo duten, haren datu pertsonalak jasotzean. Eginbehar hori betetzeko, ez da beharrezkoa interesdunak eskabidea egitea; aitzitik, tratamenduaren arduradunak modu proaktiboan bete behar du, interesdunak informazioari buruzko interesa izan zein ez.

Bilboko Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan jasotako gardentasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak komunikatu egin ditu hartutako neurriak.

- **Aholkularitza psikopedagogikoko zerbitzua ematean interesdunei informazio osatugabea ematea (PI20-011)**

Prozedura honen xede den kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako agiria, laguntza psikopedagogikoko zerbitzuaren eskarirako bete behar zen hori, hain zuzen ere salaketari erantsi zaiona, ez da egokia Erregelamenduan nahiz Lege Organiko berrian eskatutako informazio-eskakizunetarako. Lege Organikoaren 11. artikuluan oinarrizko eskakizun batzuk ezartzen dira informazioa emateko. Kasu guztietan bete behar diren oinarrizko eskakizun horiek betez gero, gainerako derrigorrezko informazioa web-orri bateko lotura baten, inprimaki gehigarri baten edo arduradunak zehazten duen beste bitarteko baten bidez emango da. Bitarteko horiek erraz eskuratzeko modukoak izango dira eta, hala, Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan ezarritako eginbeharrak bete ahalko dira.

DBEBk Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zehapena ezarri dio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) eta 12. artikuluetan eta 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikuluan jasota dagoen gardentasunaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Hezkuntza Administrazioak ez ditu komunikatu hartutako neurriak.

- **Ebazpen bat bidaltzea hirugarren batzuen NAN zenbakiekin (PI20-012)**

Barakaldoko Udal Kirol Erakundeak erreklamatzaileari administrazio-ebazpen bat komunikatu dio. Ebazpen horren eranskinean beste laurogeita hamaika lagunen Nortasun Agiri Nazionalen zenbakiak agertzen dira.

Barakaldoko Udal Kirol Erakundeari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan jasota dagoen konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.i) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak komunikatu egin ditu hartutako neurriak.

- **Kreditu-txartel baten datuak tratatzea isun bat kobratzeko (PI20-013)**

Donostiako Udaleko mugikortasun-agente batek salatzaileari errekerimendua egin dio, trafikoko zehapen bat berehala ordain dezan bitarteko telematikoak erabiliz. Horretarako, salatzailearen kreditu-txartelean agertzen diren datuak erabili ditu, CVV kodea barnean dela.

Donostiako Udalari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasota dagoen datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak ez ditu komunikatu hartutako neurriak.

- **Erroldako datuak erabiltzea adostasunik gabe (PI20-014)**

Portugaleteko Udalak udal erroldan kontsultatu du udal langilea den salatzailearen ahaide baten senidetasun-harremana eta jaiotza-eguna, eskatutako lizentzia eskuratzeko eskubiderik duen egiaztatzeko.

Udalari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan jasota dagoen zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.b) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak ez ditu komunikatu hartutako neurriak.

- **Txosten medikoa eskatzea senide bat ospitaleratzeagatiko lizentzia eskatzeko (PI20-017)**

Erreklamatzaileak salatu duenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak, senidea ospitaleratzeagatiko baimen-egunak emateko, senide horren gaixotasuna agerrarazten duen txosten medikoa eskatzen dio. Hala ere, espedientean dauden agiriak eta espedientean egindako frogak aztertutakoan

ez da egiaztatu egozketa-froga nahikorik dagoenik; beraz, errugabetasun-presuntzioaren printzipioa aplikatuta, prozedura artxibatu da.

- **Salatzailearen lan-arloko datuak argitaratzea eta zabaltzea (PI20-015)**

Udalarekin lan-arloko arazo bat zegoen, administrazio-bidean izapidetzen ari zena, eta horren ondorioz herritar batzuek, haien artean jardulearen auzokide eta lankide batzuek, 2019ko ekainean protesta bat egin zuten. Protesta hura hainbat hedabidetan agertu zen, eta alkateak hedabide horiei udal langile horren egoeraren berri eman zien. Era berean, alkateak herritarrei informazioa eman zien, udalerrian bizilagunen postontzietan banatutako idazki baten bidez. Erreklamazioa Bulegoan jaso ondoren, arau-hauste prozedura hastea eta, jurisdikzio-bidea ebatzi bitartean, prozedura hori etetea erabaki da. Prozedura hori Udalaren alde ebatzi ondoren, Bulegoak artxibatu egin du, organo judizialen argudioak aintzat hartu dituelako.

Erreklamatzaileak errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, artxibatzeko ebazpenaren aurka, eta berraztertzeko errekurtso hori ezetsi da. Geroago, erreklamatzaileak errekurtsoa jarri du jurisdikzio-bidean.

- **Salatzailearen identitatea hirugarrenei lagatzea (PI20-018)**

Pertsona batek beste baten aurkako salaketa aurkeztu du Donostiako Udaleko Hirigintza Sailean. Udalak salatzailearen nortasun-datuetara irispidea eman zion salatuari, nahiz eta —kasu zehatz hartan— informazio pertsonal horretara irispidea izatea alferrikakoa eta garrantzirik gabea izan salatuaren defentsarako eskubidea bermatzeko.

Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan eta 3/2018 Legearen 5.1 artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1. i) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Gainera, errekerimendua egin zaio, neurri egokiak har ditzan, etorkizunean konfidentzialtasun-printzipioa ez urratzeko, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraz diezaion.

Udalak Bulegoari ez dio jakinarazi neurri zuzentzailerik hartu duen ala ez.

- **Udalaren iragarki-oholean hauteskunde-mahaietako kideen datu pertsonalak argitaratzea (PI20-019)**

Soraluzeko Udalaren iragarki-oholean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen mahaietako kideen izenak, abizenak eta NAN zenbakiak argitaratu ziren.

Udalari ohartarazpena egin zaio Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan —Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluarekin lotuta— jasota dagoen zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da hori, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 b) artikuluak arau-hauste astuntzat jotzen du.

Jokabide hura hain gaitzesgarria izan ez dela onartu da, Administrazioak huts egin zuela onartu duelako, baina asmo txarrik gabe. Hutsegitea aintzat hartu ostean, neurri zuzentzaile egokiak hartu ditu, sortutako egoera berehala konpontzearren.

- **Datuak lagatzea Mutua bati (PI20-020)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, Mutua bati bere datuak lagatzeagatik, adostasunik gabe eta lege gaikuntzarik gabe.

Osakidetzari egindako komunikazioak legitimazioa dauka Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 82.2 artikuluan, Erregelamendu Orokorraren 9.2.h) artikuluarekin lotuta eta, orokorrean, 6.1 c) artikuluan, Mutuak lanbide-kontingentziak kudeatzearen helburu legitimoa bete ahal izan dezan; beraz, hasitako prozedura artxibatu da.

Erreklamatzaileak ebazpen horren aurka errekurtsoa aurkeztu du administrazio-bidean, eta berraztertzeko errekurtso hori ezetsi da.

- **Osasunari buruzko datuak zabaltzea (PI21-001)**

Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren iragarki-oholean zerbitzu-agindu bat argitaratu da, zeinaren bidez behin betiko ebatzi baita Udaltzaingoaren kidegoan lantokiak eta kategoria aldatzeko deialdia. Era berean, agindu hori Udaltzaingoko kideei posta elektroniko bidez bidali zaie. Aginduaren barnean salatzailearen lanbide-zenbakia ageri da, eta horrekin batera aldi baterako ezintasun egoeran dagoela ere.

Udalari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 9.1 artikulua urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.e) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak komunikatu egin ditu hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Udal bizikleten geolokalizazio-sistema erabiltzea zehapenak ezartzeko (PI21-002)**

Bilboko Udalak bizikleten maileguko udal zerbitzuko bizikletetan instalatuta dagoen GPSaren posizionamendu-datuak zehapenak ezartzeko tratatzen ditu, erabiltzaileei xede horren berririk eman gabe.

Bilboko Udalari zehapena ezarri zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan jasotako gardentasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Errekerimendua egin zaio Bilboko Udalari, Bilbaobizi zerbitzuko alta-eskariaren eredua Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren eta 3/2018 Lege Organikoaren xedapenen arabera molda dezan; eta hartzen dituen neurriak Datuak

Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraz diezazkion, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.

Udalak Bulegoari komunikatu dizkio hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Ordainagiriaren banku-helbideratzea aldatzeko eskaria egitea eta ez betetzea (PI21-003)**

Amorebieta-Etxanoko Udalak ur-, zabor- eta saneamendu-ordainagiriaren banku-helbideratzea aldatzeko eskaria jaso du baina ez du garaiz bete; arrazoi horregatik, salatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiaren premiamenduko probidentzia jaso du. Salatzaileak Udalari horren berri eman ondoren, Udalak akatsa konpondu du eta Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatu dio, baita salatzaileari berari ere.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ordainagiriak izapidetzeko egiten duen jarduera datu pertsonalen tratamendua da, eta araudiak eskatzen du datuak zehatzak izan daitezela eta eguneratuta egon daitezela.

Ondorioz, Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1 d) artikuluan jasotako zehaztasun-printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Gainera, errekerimendua egin zaio, antzeko kasuak berriro ez gertatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoak har ditzan eta neurri horiek hartu izanaren berri eman dezan.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ez du komunikatu neurririk hartu duenik.

- **Datuak babesteko ordezkaria izendatu gabe egotea (PI21-004)**

Ermuko Udalari zehapena ezarri zaio, datuak babesteko ordezkaria izendatzeko eginbeharra epe barruan ez betetzeagatik, hala ezartzen baita Erregelamendu Orokorraren 37. artikuluan eta 3/2018 Lege Organikoaren 34. artikuluan. Jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.4 a) artikuluan xedatuta dagoen arau-haustea da, 3/2018 Legearen 73 v) artikuluaren arabera arau-hauste astuna da eta ohartarazpen bidez zehatzen da.

Kasu horretan ez da neurri zuzentzailerik hartu, Administrazioak datuak babesteko ordezkaria izendatu duelako jada.

- **Osasun-txartela baliogabetzea (PI21-005)**

Erreklamatzaileak salaketa aurkeztu du Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurka, bere osasun-txartela baliogabetu dutelako adostasunik eta horretarako lege-gaikuntzarik gabe.

Espedientean froga egin da eta honako hau egiaztatu da: Osakidetzako informazio-sistema korporatiboetan sartzeko baimena daukan erabiltzaile batek aldaketa bat egin du salatzailearen kupo medikoan, eta denborazkotasuna aldatu du, ohikotik lekuz aldatutakora, interesdunak eskatu gabe; horren ondorioz, datu pertsonalak zehaztugabe bilakatu dira. Aldaketa horren berri izan ondoren, zuzendu egin da.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1. d) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 72.1 a) artikuluan arau-hauste oso astuntzat jotzen delako.

- **Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei buruzko jakinarazpen-abisuak hirugarren bati igortzea (PI21-006)**

Notariotzaren Kontseilu Nagusiak salatu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei buruzko jakinarazpen-abisuak igorri ditu gai horrekin zerikusirik ez duen posta elektronikoko helbide batera, jakinarazpenak izapidetzeko sistemak NANik edo AIZik ez daukaten pertsonen 00000000T IFK hutsegite batengatik lotzen zuelako; horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundia Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren posta elektronikoko helbidearekin konektatzen zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Ez da erabaki neurri zuzentzailerik ezartzea, halako neurriak Gipuzkoako Foru Aldundiak jada hartu dituelako.

- **PI21-011 Aldundiaren web orrian datu pertsonalak argitaratzea (PI21-011)**

Salatzailea hautaketa-prozesu batean parte hartzen ari zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, hautaketa-prozesu hori izapidetzean, prozedura hartan egindako merezimendu-balorazioen emaitzen aurka salatzaileak aurkeztutako errekurtsoa argitaratu zuen Aldundiaren webguneko eremu pribatuan. Errekurtsoaren idazkiarekin batera, emandako zerbitzuei dagokien eranskina argitaratu zen. Agiri hartan, prozesuan baloratu behar ez diren datuak ageri ziren, bai eta eremu pertsonalari eta familia-eremuari dagozkion beste datu batzuk ere.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan jasotako datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Lege-testu horren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.a) artikuluak arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

- **PI21-012 Telegram aplikazioa erabiltzea polizia-jardunarekin zerikusia duten helburuetarako**

Sestaoko Udaleko Udaltzaingoaren zinegotzi eskuordetuak eta langileek Telegram aplikazioa erabiltzen dute polizia-jardunarekin zerikusia duten zenbait helburutarako: trafiko-istripuen txostenak egiteko datuak jasotzea, ondasun publikoetan kalteak seinaleztatzea, argazkiak eginez jabego partikularretan

kalteak egiaztatzea, armen argazki-txostenak egitea eta argiketa judizialetan erantsi beharreko beste froga batzuk egitea, galdutako animaliak identifikatzea eta delitu izan daitezkeen gertakarietan inplikatutako pertsonak identifikatzea.

Aplikazioaren segurtasun-neurriak ez dira nahikoak, eta Udalak berak hala onartu du; horregatik, osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratu dela deklaratu da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikuluak dioenaren arabera.

Hartu beharreko neurri zuzentzaileei buruz ez da irizpenik eman, halako neurriak 2021eko uztailaren 21eko jarraibidearen bidez hartu direlako.

## 4.4. EPAIAK

2020. urtean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiek lau epai eman dituzte Euskal Administrazioek Bulegoaren ebazpenen kontra aurkeztutako errekurtsoetan. Epai horietatik bi ezesleak izan ziren, eta beste bi baiesleak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak epai horietako baten aurka apelazioa aurkeztu zuen, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Bulegoaren aldeko epaia eman zuen. Donostiako Udalak PI19-009 prozeduran aurkeztutako demandak soilik egin zuen aurrera, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak horren aurka ez zuen errekurtsorik aurkeztu.

2021. urtean, jurisdikzio-organoek bost epai eman zituzten, horiek guztiak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aldekoak. Zehapena jaso zuten Administrazioetako batek epaiaren aurka apelazioa aurkeztu zuen.

## 5. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA

## 6. DBEB-KO LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA

Memoria honen aurkezpenean azaldu denez, DBEBko langileek hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dute parte, DBEOk aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz eta pribatutasuna euskal administrazio publikoen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrizanari buruz.

Hona hemen DBEBko langileek eman dituzten prestakuntza-saioen laburpena:

### 6.1. 2020. URTEA

- Saio bat IKTen arloko graduondoko batean - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea, 2020ko urtarrilaren 31).
- Hitzaldi bat gardentasunari buruz - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea).
- Osasuneko Datuen Segurtasunari eta Babesari buruzko XVII. Foroa (SEIS - Osasunaren Informatikako Espainiako Elkartea, 2020ko otsailaren 5a).
- DBEOri buruzko masterra (UNED – Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala eta AEPD – Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, 2020ko martxoaren 5a).
- Prestakuntza: «Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra» (IVAP, 2020ko maiatzaren 4tik 29ra).
- Jardunaldia: Sektore publikoko administrazio-prozedura eta araubide juridikoa berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik (IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2020ko ekainaren 23a).
- Prestakuntza: «Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra» (IVAP, 2020ko urria).
- XII DBSJ – Datu Babesa eta Segurtasuna Jardunaldia (UPV-EHU – Informatikako Ingeniarien Unibertsitate Eskola, 2020ko abenduaren 2a).
- «DBO, etorkizuneko lanbidea» izeneko jardunaldia (UPV-EHU Sarrikoko Campusa, 2020ko abenduaren 2a eta 3a).
- Saio bat telekomunikazioetako masterrean: UPV-EHU - TIGET (telekomunikazioetako Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa, 2020ko abenduaren 11).
- Hitzaldi bat Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako abokatutza jarduerarako masterrean.

### 6.2. 2021. URTEA

- Saio bat IKTen arloko graduondoko batean - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea, 2021eko urtarrilaren 21a).
- Hitzaldi bat gardentasunari buruz - Aditua Zuzenbide Digitalean (Deustuko Unibertsitatea).

- Berariazko ikastaroa: «Datuen babesaren erreferenteak EAEko administrazio orokorrean» (IVAP - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2021eko apirilaren 5a).
- Prestakuntza: «Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra» (IVAP– 2021eko apirila).
- Osasuneko Datuen Segurtasunari eta Babesari buruzko XVIII. Foroa (SEIS - Osasunaren Informatikako Espainiako Elkartea, 2021eko maiatzaren 20a).
- Polizia-esparruko datuen babesari buruzko jardunaldia Getxoko Udaltzaingoarentzat (2021eko ekainaren 6a)
- «Agiritegiak eta datuen babesa» ikastaroa (UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa-UIK eta DBEB, 2021eko uztailaren 8a).
- Prestakuntza: «Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra» (IVAP – 2021eko urriaren 4tik 29ra).
- Datuen babesari buruzko ikastaroa enplegatu publikoentzat (GFA Gipuzkoako Foru Aldundia, 2021eko azaroaren 9a).
- Hitzaldia OSALANen: «Datuen babesa eta laneko arriskuen prebentzioa» – Presentziala, Osalanen (Barakaldo, 2021eko azaroaren 17a).
- XII DBSJ – Datu Babesa eta Segurtasuna Jardunaldia (UPV-EHU – Informatikako Ingeniarien Unibertsitate Eskola, 2021eko azaroaren 23a).
- Saio bat telekomunikazioetako masterrean (UPV-EHU - TIGET telekomunikazioetako Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa, 2021eko abenduaren 13a).
- Hitzaldi bat Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako abokatutza jarduerarako masterrean.
- Eusko Jaurlaritzako funtzionarioentzako ikastaroa.
- Gardentasunari eta datuen babesari buruzko ikastaroa Arabako Foru Aldundiarentzat.
- Datuen babesari buruzko ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.
- Datuen babesari, IKTetako zuzenbideari eta zibersegurtasunari buruzko UPV-EHUren masterrean parte hartzea.
- Datuen babesa-laneko arriskuen prebentzioa, Osalanentzat.
- Polizia-esparruko datuen babesari buruzko jardunaldia Getxoko Udaltzaingoarentzat.

## 7. BARNE KUDEAKETA

### 7.1. EGITURA ETA LANGILERIA

### 7.1.1. Organigrama eta langileriaren banaketa



### 7.1.2. Egitura organikoa eta Lanpostu Zerrenda (LZ)

- **Lanpostu zerrenda**

Lanpostuen zerrendak administrazioko barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian. Hori guztia uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren II. tituluko I. kapituluan xedatuta dagoenaren arabera.

Ordenamendu juridikoan jazo diren garrantzi handiko arau-berrikuntza sakonek ekarri dituzten erronka berri eta handiei aurre egin behar izan zitzaien administrazio-agintaritza independente baten funtzionamendu efizienterako, eta erronka horien artean bereziki aipatu behar da 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Erregelamendu Orokorra). Horregatik, ezinbestekoa izan zen izapidetzea zenbait lanpostu sortzeko eta aldatzeko prozesuak.

Zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenak (EHAA, 2018ko abenduaren 3koa) onartu zuen karrerako funtzionarioentzat gordetako gaur egungo lanpostu zerrenda.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2017ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez onartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulegoko behin-behineko langileen lanpostu zerrenda (EHAA, 2017ko ekainaren 22koa).

### 7.1.3. 2020an betetako lanpostuak

- **Bitarteko funtzionarioen izendapenak**

Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritza Unitatean letradu instruktore-ikuskatzaileen hiru lanpostu hutsik zeudenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 8ko eta otsailaren 10eko Ebazpenen bidez erabaki zen lanpostu horiek aldi baterako betetzea (bitarteko funtzionarioak izendatzea), IVAPeko lan-poltsetako langileekin. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, zuzendariaren 2020ko otsailaren 21eko Ebazpen bidez lanpostu horiek bete ziren.

Idazkaritza Nagusiko Unitatean teknikari itzultzailearen lanpostua ere hutsik zegoen. Lanpostu horretarako antzeko prozedura bat izapidetu zen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 24ko Ebazpenaren bidez. Zuzendariaren 2020ko martxoaren 15eko Ebazpenaren bidez, lanpostua IVAPeko lan-poltsetan prest zauden langileekin bete zen.

## 7.2. 2020KO ETA 2021EKO AURREKONTUAK

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluak honako hau ezartzen du: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain*

*ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera*».

2019ko urriaren 4ko eta 2020ko azaroaren 19ko Ebazpenen bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak 2020. eta 2021. urteetako aurrekontuen aurreproiektuak onartu zituen eta Eusko Jaurlaritzari igortzeko agindu zuen, modu beregainean EAEko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko.

Horren haritik, abenduaren 27ko 13/2019 Legeak eta otsailaren 11ko 1/2021 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. eta 2021. urteetako Aurrekontu Orokorrak hurrenez hurren onartzen dituzten horiek, honako hau ezartzen dute 1.4 artikuluan: «Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontua ere onartzen da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluan».

### 7.2.1. 2020ko aurrekontu-betearazpena

**GASTUEN AURREKONTUA**

| Kapitulua | KAPITULUEN IZENA | Kredituak guztira | Onartutako obligazioak | Egindako ordainketak | Ordaintzeke | Betearazpen egoera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Langileen gastuak | 1.564.213,00 | 1.426.492,86 | 1.405.448,12 | 21.044,74 | % 91,20 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 499.600,00 | 357.321,55 | 341.926,45 | 15.395,10 | % 71,52 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 9.000,00 | 2.500,00 | | 2.500,00 | % 27,78 |
| 6 | Inbertsio errealak | 92.000,00 | 27.676,88 | 13.811,28 | 13.865,60 | % 30,08 |
| | Gastuen batura guztira | 2.164.813,00 | 1.813.991,29 | 1.761.185,85 | 52.805,44 | % 83,79 |

**SARREREN AURREKONTUA**

| Kapitulua | KAPITULUEN IZENA | Behin betiko aurreikuspenak | Eskubide garbiak | Egindako sarrerak | Kobratzeke | Betearazpen egoera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 2.000,00 | | | | |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.778.069,00 | 1.778.069,00 | 1.778.069,00 | | % 100,00 |
| 5 | Ondare-sarrerak | 1.000,00 | 351,45 | 351,45 | | % 35,15 |
| 7 | Kapital transferentziak | 14.000,00 | 14.000,00 | 14.000,00 | | % 100,00 |
| 8 | Finantza-aktiboak | 369.744,00 | | | | |
| | Sarreren batura guztira. | 2.164.813,00 | 1.792.420,45 | 1.792.420,45 | | % 82,80 |

## 7.2.2. 2021eko aurrekontu-betearazpena

### GASTUEN AURREKONTUA

| Kapitulua | KAPITULUEN IZENA | Kredituak guztira | Onartutako obligazioak | Egindako ordainketak | Ordaintzeke | Betearazpen egoera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Langileen gastuak | 1.591.840,00 | 1.461.082,11 | 1.436.037,55 | 25.100,51 | % 91,79 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 499.600,00 | 285.250,05 | 277.658,29 | 7.591,76 | % 57,10 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 9.000,00 | | | | |
| 6 | Inbertsio errealak | 92.000,00 | 36.284,90 | 7.834,75 | 28.450,15 | % 39,44 |
| | Gastuen batura guztira | 2.192.440,00 | 1.782.617,06 | 1.721.530,59 | 61.142,42 | % 81,34 |

### SARREREN AURREKONTUA

| Kapitulua | KAPITULUEN IZENA | Behin betiko aurreikuspenak | Eskubide garbiak | Egindako sarrerak | Kobratzeke | Betearazpen egoera |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.802.261,00 | 1.802.261,00 | 1.802.261,00 | | % 100,00 |
| 5 | Ondare-sarrerak | | 2.108,60 | 2.108,60 | | |
| 7 | Kapital transferentziak | 15.000,00 | 15.000,00 | 15.000,00 | | % 100,00 |
| 8 | Finantza-aktiboak | 375.179,00 | | | | |
| | Sarreren batura guztira. | 2.192.440,00 | 1.819.369,60 | 1.819.369,60 | | % 82,98 |

## 7.2.3. Ekonomia, finantza eta kontabilitate arloetako kontrola

DBEB kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago eta Autonomia Erkidegoko Administrazioko Ekonomia eta Ogasun Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrolaren menpe; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzetako eta kontabilitateko jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.

DBEBren kudeaketa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokiak diren aztertzeko, eta Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da kontu-auditoretzak urtean behin egiten.

- **2019ko auditoretza**

2019ko ekitaldiko kontuak, programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriarekin batera aurkeztu ziren horiek, 2020ko ekainaren 30ean ikuskatu ziren. Hona auditoretzaren azken txostena:

«... *2019ko ekitaldiaren urteko kontuek Datuak Babesteko Euskal Bulegoren alderdi esanguratsu guztietan 2019ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiru-fluxuen emaitzena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.*

*Honi atxikita doan 2019ko helburuen betetze-mailari buruzko memorian daude jasota zuzendariak eman nahi dituen azalpenak, baina urteko kontuetatik aparteko*

*agiria da. Egiaztatu dugu helburuen betetze-mailari buruzko memorian jasota dagoen kontabilitate-informazioa 2019ko ekitaldiko kontuekin bat datorrela.*»

- **2020ko auditoretza**

2020ko ekitaldiko kontuak, programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriarekin batera aurkeztu ziren horiek, 2021eko apirilaren 8an ikuskatu ziren. Hona auditoretzaren azken txostena:

«*... honekin batera doazen urteko kontuek entitatearen alderdi esanguratsu guztietan 2020ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera (araudi hori memoriaren 6.2 oharrean identifikatzen da) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.*

*Helburuak betetzeari buruzko memorian biltzen den informazioa bat dator 2020ko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin, eta edukia, baita informazioa aurkezteko modua ere, bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin.*»

## 7.3. BALIABIDE MATERIALAK

### 7.3.1. Egoitza

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitza EJIEri alokairuan hartutako lokaletan dago, Apaizgaitegiaren eraikinaren atzeko aldean. Hona hemen helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua.

### 7.3.2. Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin da DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Argitaratu beharreko liburuxkak eta beste zenbait elementu diseinatzea eta editatzea (2020)
- Urteko memoria argitaratzea
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak

- Kanpoko prebentzio-zerbitzua (LAP)

### 7.3.3. Egitura teknologikoa eta aplikazioen hobekuntza

DBEBk eta EJIEk izenpetutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan (2020ko eta 2021eko adenden bidez garatuta) hainbat zerbitzu eta dotazio informatiko eta komunikazio-zerbitzu burutu dira, eta egitura informatikoa hobetu da, bai hardwarearen aldetik, bai softwarearen aldetik.

## 7.4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

### 7.4.1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak hainbat eginkizun eta betebehar ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio-plan bat ezartzea dago. Prebentzio-planak erakundeen lan jarduera guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hori oinarrizko eginbeharra dela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lan-ingurunearen zainketa eta hobekuntza funtsezko jarduerak direla erakundea kudeatzeko.

Prebentzio-jarduera sendotzearen eta hobetzearen aldetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezarrita daukan Laneko Arriskuen Prebentzioko politika garatzen du eta, horretarako, prebentzioko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzen eta burutzen ditu urtero.

Jarduera-planen barruan, 2020an eta 2021ean honako jarduketa hauek egin dira:

- Segurtasunaren, Higienearen eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruko Jardueren urteko plana
    - Lanpostuko lan-arriskuen ebaluazio etengabea
    - Laneko arriskuei buruzko informazioa langileentzat
- Osasunaren Zainketaren arloko Jarduera Planaren urteko egitaraua
    - Mediku azterketak

### 7.4.2. COVID-19aren ziozko kontingentzia-planak

COVID-19ak 2020an eragindako pandemiaren egoera larriak inoiz ez bezalako osasun-krisia sorrarazi zuen. Eragin larria izan zuen: lan-eremuan gaixotasun infekzioso batekin kutsatzeko arrisku handia zegoen, eta alderantzizkoa ere gerta zitekeen, hau da, familia-osasunean eta, orokorrean, osasun publikoan eragina izatea.

COVID-19aren ziozko egoera zela-eta, aparteko euste-neurriak hartu behar izan ziren, baita aparteko antolakuntzazko neurriak ere, lan-arloarekin nahiz lan-bizitza eta familia bateragarri egitearekin zerikusia zutenak, zerbitzu publikoak ematean berme nahikoak emanez instituzioaren jarduera mantentzeko. Pandemiaren bilakaera kontuan hartuta, hainbat neurri aplikatu ziren apurka, besteak beste

lanaldiaren orduak malgutzea eta zerbitzuak emateko norberaren etxebizitzan eskura zeuden baliabide telematikoak erabiltzea.

Horretarako, eta Osasun Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzaren gidalerroei jaramon eginda, 2020an SARS-CoV-2 koronabirusaren eraginpean egotegatiko arriskuetarako kontingentzia-plan propioa idatzi zen. Plan hori IMQ Prevención enpresak (kanpoko prebentzio-zerbitzua) egin zuen, DBEBko hainbat laguntzailerekin batera. Plan hori 2021ean ere aplikatu da.

2021eko ekitaldian ezarritako lanaldia eta ordutegiak betetzeari dagokionez, hartutako neurrien artean nabarmentzekoa da lanaldiko ordu malguak ezartzea eta telelana sustatzea, lantokietan pertsonen presentzia masiborik ez egoteko eta garraio kolektiboetan egindako joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko. Orain arte, Bulegoan egindako esperientzia orokorrean pozik egoteko modukoa izan da, jarduera betetzeari eta zerbitzua behar bezala emateari begira prebentzio-neurri egokia den aldetik.

## 7.5. KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA

### 7.5.1. Kudeaketa jasangarria

Orokorrean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerek ez dute eragin txarrik ingurumenean eta ez da gastu edo inbertsio handirik egin behar balizko eragin horiek gutxitzeko.

Dena dela, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ingurumenaren kontserbaziorako balioak errespetatzen dituen kudeaketa bat lortzeko konpromisoa hartu du. Konpromiso horren barruan funtsezkoa da baliabide naturalen zentzuzko erabileran oinarritutako kudeaketa, bai eta materialen eta ekipamenduen bizi-zikloa modu efikazean optimizatzea ere.

Teknologia berriak ezartzea eta, horrekin batera, dokumentuak formatu digitalean tratatzea, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko tresnetako bat da, bai eta kostuak eta espazioa aurrezteko modu bat ere.

# 8. AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK

## 8.1. 2020. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

**Kontsultak**

| 2020. urtea | | Kopurua |
|---|---|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra | Osasun Saila | 3 |
| Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa | Arabako Foru Aldundia | 2 |
| | Bizkaiko Foru Aldundia | 1 |
| | Donostiako Udala | 1 |
| | Legutioko Udala | 1 |
| | Leioako Udala | 1 |
| | Plentziako Udala | 1 |
| | Portugaleteko Udala | 2 |
| **JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA** | | **12** |

**Irizpenak**

| 2020. urtea | Kopurua |
|---|---|
| EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA | **14** |

**Legezkotasun-txostenak**

| 2020. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak | **10** |
| **EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA** | **10** |

## 8.2. 2020. KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

**Eskubideak babesteko erreklamazioak**

| 2020. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Jasotako babes-eskariak | 22 |
| Ebatzitako babes-eskariak | 21 |

**Salaketak**

| 2020. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Aurkeztutako salaketak | 28 |
| Ebatzitako salaketak | 37 |

## Arau-hauste prozedurak

| 2020. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Hasitako arau-hauste prozedurak | 19 |
| Ebatzitako arau-hauste prozedurak | 24 |

## 8.3. 2021. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

### Kontsultak

| 2021. urtea | | Kopurua |
|---|---|---|
| Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa | Arabako Foru Aldundia | 3 |
| | Vitoria-Gasteizko Udala | 1 |
| | Gorlizko Udala | 1 |
| | Guardiako Udala | 1 |
| | Lemoizko Udala | 1 |
| | Portugaleteko Udala | 1 |
| | Astegietako Administrazio Batzarra | 1 |
| Beste entitate batzuk | Partzuergoak | 1 |
| | Sindikatuak | 2 |
| | Q-Epea | 1 |
| **JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA** | | **13** |

### Irizpenak

| 2021. urtea | Kopurua |
|---|---|
| EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA | **8** |

### Legezkotasun-txostenak

| 2021. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak | **12** |
| **EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA** | **10** |

## 8.4. 2021. KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

**Eskubideak babesteko erreklamazioak**

| 2021. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Jasotako babes-eskariak | 64 |
| Ebatzitako babes-eskariak | 57 |

**Salaketak**

| 2021. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Aurkeztutako salaketak | 52 |
| Ebatzitako salaketak | 49 |

**Arau-hauste prozedurak**

| 2021. urtea | Kopurua |
|---|---|
| Hasitako arau-hauste prozedurak | 17 |
| Ebatzitako arau-hauste prozedurak | 12 |

# 9. BARNE-KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK

## 9.1. LANGILERIAREN BANAKETARI BURUZKO DATUAK - 2020/2021

Hona hemen langileriaren egoera, sexua kontuan hartuta:

| Kategoria | 2021-12-31 | | | 2020-12-31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
| Zuzendaria | 1 | | 1 | 1 | | 1 |
| Goi-mailako teknikariak | 5 | 10 | 15 | 5 | 10 | 15 |
| Administrariak | 2 | 2 | 4 | 2 | 2 | 4 |
| **GUZTIRA** | **8** | **12** | **20** | **8** | **12** | **20** |

Urteko aurrekontu-plantillako lanpostuen aldakuntza honako hau izan da:

| Plantilla, langileen moten eta mailaren arabera | 2021eko abe. | | 2020ko abe. | | 2019ko abe. | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Dotazioa | Benetakoa | Dotazioa | Benetakoa | Dotazioa | Benetakoa |
| GOI-KARGUDUNAK | | | | | | |
| ZUZENDARIA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK | | | | | | |
| AHOLKULARIA I-A / 28 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| FUNTZIONARIOAK | | | | | | |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA I-A / 28 MAILA | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-A / 27 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-B / 27 MAILA | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 4 |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-C / 27 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-B / 25 MAILA | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-C / 25 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | |
| ADMINISTRARIA IV-A / 22 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ADMINISTRARIA V-C / 20 MAILA | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA VI-A / 18 MAILA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **21** | **20** | **21** | **20** | **21** | **16** |

## 9.2. AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK - 2020

- **2020ko aurrekontuaren likidazioa**

## Gastuen aurrekontua

| Azalpena | Behin betiko aurrekontu-kredituak | Onartutako obligazioak | Ordainketak | Ordaindu gabeko obligazioak abenduaren 31n | Betearazpen egoera | Onartutako obligazioak 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GOI-KARGUDUNEN ORDAINSARIAK | 81.289,00 | 79.471,76 | 79.471,76 | | % 97,76 | 71.287,04 |
| BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK | 66.385,34 | 66.385,34 | 66.385,34 | | % 100,00 | 65.004,06 |
| FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK | 1.085.159,00 | 991.668,23 | 991.668,23 | | % 91,38 | 816.121,48 |
| ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK | 290.679,66 | 250.366,64 | 229.321,90 | 21.044,74 | % 86,13 | 210.663,29 |
| PENTSIOEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK | 22.760,00 | 22.750,51 | 22.750,51 | | % 99,96 | 14.302,52 |
| PRESTAKUNTZA | 4.240,00 | 479,00 | 479,00 | | % 11,30 | 1.164,00 |
| GIZARTE EKINTZA | 4.700,00 | 4.700,00 | 4.700,00 | | % 100,00 | 4.089,00 |
| ASEGURUAK | 9.000,00 | 10.671,38 | 10.671,38 | | % 118,57 | 6.311,23 |
| ERAIKINAK | 1.000,00 | 238,64 | 238,64 | | % 23,86 | |
| TRESNERIA | | 42,97 | 42,97 | | | 1,50 |
| ALTZARIAK | 10.000,00 | 6.520,81 | 4.294,20 | 2.226,61 | % 65,21 | 9.352,70 |
| INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK | | | | | | 49,10 |
| PROFESIONAL INDEPENDENTEEN ZERBITZUAK | 33.000,00 | | | | | 41.559,87 |
| ABOKATUAK PROKURADOREAK ETA KOSTU JUDIZIALAK | 5.000,00 | | | | | |
| ERAKUNDE KOMUNIKAZIOA | 20.000,00 | 6.498,91 | 6.498,91 | | % 32,49 | |
| PROTOKOLOA ETA ORDEZKARITZA | 6.000,00 | 825,00 | 825,00 | | % 13,75 | 1.297,62 |
| BULEGOKO MATERIALA | 8.000,00 | 1.732,06 | 1.732,06 | | % 21,65 | 4.936,48 |
| PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK | 12.000,00 | 13.168,89 | 12.965,29 | 203,60 | % 109,74 | 14.170,27 |
| LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK | 20.000,00 | 4.708,91 | 4.458,91 | 250,00 | % 23,54 | 16.084,46 |
| POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK | 12.000,00 | 1.426,35 | 1.300,15 | 126,20 | % 11,89 | 2.494,65 |
| MEZULARITZA | 1.000,00 | 156,67 | 156,67 | | % 15,67 | 50,60 |
| APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAPENA | 8.100,00 | 16.538,04 | 15.058,83 | 1.479,21 | % 204,17 | 12.081,05 |
| KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK | 327.000,00 | | | | | |
| EJIE. Lokalen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | | 175.552,68 | 175.552,68 | | | 174.165,00 |
| EJIE. Ekipo informatikoen alokairua. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | | 10.387,76 | 8.633,65 | 1.754,11 | | 9.534,89 |
| EJIE. Aplik. informatik. manten. eta ustiaketa. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | | 86.816,93 | 77.461,56 | 9.355,37 | | 80.880,44 |
| ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA | 6.000,00 | 21.243,64 | 21.243,64 | | % 354,06 | 1.820,10 |
| BILERAK, HITZALDIAK ETA IKASTAROAK | 21.000,00 | 971,55 | 971,55 | | % 4,63 | 8.591,21 |
| BESTE ZERBITZU BATZUK | 9.500,00 | 10.491,74 | 10.491,74 | | % 110,44 | 4.280,10 |
| IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI | 9.000,00 | 2.500,00 | | 2.500,00 | % 27,78 | 3.500,00 |
| **Eragiketa arruntak guztira:** | **2.072.813,00** | **1.786.314,41** | **1.747.374,57** | **38.939,84** | **% 86,18** | **1.573.792,66** |
| ALTZARIAK | | | | | | 4.477,00 |
| APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 92.000,00 | 27.676,88 | 13.811,28 | 13.865,60 | % 30,08 | 24.715,41 |
| **Kapital eragiketak guztira:** | **92.000,00** | **27.676,88** | **13.811,28** | **13.865,60** | **% 30,08** | **29.192,41** |
| **Guztira:** | **2.164.813,00** | **1.813.991,29** | **1.761.185,85** | **52.805,44** | **% 83,79** | **1.602.985,07** |

## Diru-sarreren aurrekontua

| Azalpena | Behin betiko aurrekontu-aurreikuspenak | Onartutako eskubideak | Betearazpenaren % | 2019an onartutako eskubide garbiak |
|---|---|---|---|---|
| APARTEKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK | 2.000,00 | | | |
| ONDARE-SARRERAK | 1.000,00 | | | |
| APARTEKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK | | 351,45 | | |
| EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK | 1.778.069,00 | 1.778.069,00 | % 100,00 | 1.592.705,00 |
| **Eragiketa arruntak guztira** | **1.781.069,00** | **1.778.420,45** | **% 99,85** | **1.592.705,00** |
| EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK | 14.000,00 | 14.000,00 | % 100,00 | 11.918,00 |
| DIRUZAINTZAKO GERAKINAK | 369.744,00 | | | |
| **Kapital eragiketak guztira** | **383.744,00** | **14.000,00** | **% 3,65** | **11.918,00** |
| **Guztira:** | **2.164.813,00** | **1.792.420,45** | **% 82,80** | **1.604.623,00** |

## Aurrekontu-emaitza

| Azalpena | Onartutako eskubide garbiak | Onartutako obligazio garbiak | Aurrekontu-emaitza 2020 | Aurrekontu-emaitza 2019 |
|---|---|---|---|---|
| a) Eragiketa arruntak | 1.778.420,45 | 1.786.314,41 | (-7.893,96) | 18.912,34 |
| b) Kapital eragiketak | 14.000,00 | 27.676,88 | (-13.676,88) | (-17.274,41 €) |
| **I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA** | **1.792.420,45** | **1.813.991,29** | **(-21.570,84)** | **1.637,93** |
| **II. AURREKONTU-EMAITZA DOITUA** | **1.792.420,45** | **1.813.991,29** | **(-21.570,84)** | **1.637,93** |

- **Itxitako aurrekontuen likidazioa**

## Ordaindu beharreko obligazioak aurreko ekitaldietakoak

| Azalpena | Ordaindu gabeko obligazioak urtarrilaren 1ean | Egindako ordainketak |
|---|---|---|
| Enplegatzailearen konturako gizarte kotizazioak | 17.951,32 | 17.951,32 |
| Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak | 6.092,20 | 6.092,20 |
| Gizarte-ekintza | 4.089,00 | 4.089,00 |
| Tresneria | 1,50 | 1,50 |
| Altzariak | 2.990,17 | 2.990,17 |
| Informazio-prozesuetarako ekipoak | 49,10 | 49,10 |
| Profesional independenteen zerbitzuak | 41.559,87 | 41.559,87 |
| Bulegoko materiala | 882,24 | 882,24 |
| Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk | 227,32 | 227,32 |
| Lokomozioa eta egonaldi-gastuak | 86,18 | 86,18 |
| Posta bidezko komunikazioak | 158,70 | 158,70 |
| Mezularitza | 36,30 | 36,30 |
| Aplikazio informatikoen mantentze-lana eta ustiaketa | 1.556,92 | 1.556,92 |
| EJIE. Lokalen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | 14.607,48 | 14.607,48 |
| EJIE. Ekipo informatikoen alokairua. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | 2.220,74 | 2.220,74 |
| EJIE. Aplik. informatik. manten. eta ustiaketa. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | 13.490,05 | 13.490,05 |
| Beste zerbitzu batzuk | 52,27 | 52,27 |
| Irabazi-asmorik gabeko beste instituzio batzuei | 3.500,00 | 3.500,00 |
| Aplikazio informatikoak | 12.264,94 | 12.264,94 |
| **Batura guztira (Jatorriko ekitaldia: 2019).** | **121.816,30** | **121.816,30** |

- **Ondare-emaitza ekonomikoaren kontua**

| | EKITALDIA: 2020 | EKITALDIA: 2019 |
|---|---|---|
| **2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak** | **1.792.069,00** | **1.604.623,00** |
| a) Ekitaldikoak | 1.792.069,00 | 1.604.623,00 |
| a.2) Transferentziak | 1.792.069,00 | 1.604.623,00 |
| **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)** | **1.792.069,00** | **1.604.623,00** |
| **8. Langile-gastuak** | **(-1.426.492,86)** | **(-1.188.942,62)** |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | (-1.137.525,33) | (-952.412,58) |
| b) Gizarte kargak | (-288.967,53) | (-236.530,04) |
| **9.Emandako transferentziak eta dirulaguntzak** | **(-2.500,00)** | **(-3.500,00)** |
| **11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk** | **(-357.321,55)** | **(-381.350,04)** |
| a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak | (-357.321,55) | (-381.350,04) |
| **12. Ibilgetuaren amortizazioa** | **(-19.818,23)** | **(-13.601,27)** |
| **B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)** | **(-1.806.132,64)** | **(-1.587.393,93)** |
| **I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)** | **(-14.063,64)** | **17.229,07** |
| **13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak** | | **122,22** |
| b) Bajak eta besterentzeak | | 122,22 |
| **14. Arruntak ez diren beste partida batzuk** | **351,45** | |
| a) Sarrerak | 351,45 | |
| **II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)** | **(-13.712,19)** | **17.351,29** |
| **III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)** | | |
| **IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)** | **(-13.712,19)** | **17.351,29** |

- **Ibilgetua**

| | Ekitaldi bukaeran metatutako balioak | | | Ekitaldi hasieran metatutako balioak | | | Ekitaldiko aldaketak | | Ekitaldiko amorti | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gordina | Amortizazioa | Garbia | Gordina | Amortizazioa | Garbia | Berria | Bajak | Amortizazioa | |
| Aplikazio informatikoak | 577.317,04 | 520.773,34 | 56.543,70 | 810.131,75 | 766.234,57 | 43.897,18 | 27.676,88 | (-260.491,59) | 15.030,36 | |
| Bulegoko ekipoak | 24.165,01 | 16.389,87 | 7.775,14 | 24.165,01 | 13.824,73 | 10.340,28 | | | 2.565,14 | |
| Ekipo informatikoak | 3.643,86 | 3.643,86 | | 3.643,86 | 3.643,86 | | | | | |
| Instalazio teknikoak | 12.021,70 | 12.021,70 | | 12.021,70 | 12.021,70 | | | | | |
| Altzariak | 160.040,04 | 157.822,95 | 2.217,09 | 160.040,04 | 155.849,68 | 4.190,36 | | | 1.973,28 | |
| Beste inbertsio batzuk | 5.005,80 | 5.005,80 | | 5.005,80 | 5.005,80 | | | | | |
| Bestelako ekipoak | 2.418,20 | 1.757,35 | 660,85 | 2.418,20 | 1.507,90 | 910,30 | | | 249,45 | |
| **Guztira, orokorrean** | **784.611,65** | **717.414,87** | **67.196,78** | **1.017.426,36** | **958.088,24** | **59.338,12** | **27.676,88** | **(-260.491,59)** | **19.818,23** | **(** |

## 9.3. AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK - 2021

- **2021eko aurrekontuaren likidazioa**

## Gastuen aurrekontua

| Azalpena | Behin betiko aurrekontu-kredituak | Onartutako obligazioak | Ordainketak | Ordaindu gabeko obligazioak abenduaren 31n | Betearazpen egoera | Onartutako obligazioak 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GOI-KARGUDUNEN ORDAINSARIAK | 82.022,00 | 80.187,58 | 80.187,58 | | % 97,76 | 79.471,76 |
| BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK | 66.984,00 | 66.982,86 | 66.982,86 | | % 100,00 | 66.385,34 |
| FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK | 1.102.329,00 | 1.041.165,07 | 1.041.165,07 | | % 94,45 | 991.668,23 |
| ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK | 290.680,00 | 230.747,83 | 210.631,94 | 20.115,89 | % 79,38 | 250.366,64 |
| PENTSIOEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK | 25.000,00 | 23.862,58 | 18.877,96 | 4.984,62 | % 95,45 | 22.750,51 |
| PRESTAKUNTZA | 6.700,00 | 736,00 | 736,00 | | % 10,99 | 479,00 |
| GIZARTE EKINTZA | 6.000,00 | 5.999,99 | 5.999,99 | | % 100,00 | 4.700,00 |
| ASEGURUAK | 12.125,00 | 11.400,20 | 11.400,20 | | % 94,02 | 10.671,38 |
| ERAIKINAK | 1.000,00 | | | | % 0,00 | 238,64 |
| TRESNERIA | | | | | | 42,97 |
| ALTZARIAK | 10.000,00 | 7.216,48 | 5.872,32 | 1.344,16 | % 72,16 | 6.520,81 |
| PROFESIONAL INDEPENDENTEEN ZERBITZUAK | 23.000,00 | | | | % 0,00 | |
| ABOKATUAK, PROKURADOREAK ETA KOSTU JUDIZIALAK | 5.000,00 | 819,66 | 819,66 | | % 16,39 | |
| BANKU-ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK | | 4.149,32 | 4.149,32 | | | |
| ERAKUNDE KOMUNIKAZIOA | 18.000,00 | | | | % 0,00 | 6.498,91 |
| PROTOKOLOA ETA ORDEZKARITZA | 6.000,00 | 2.729,30 | 2.729,30 | | % 45,49 | 825,00 |
| BULEGOKO MATERIALA | 8.000,00 | 1.659,11 | 1.659,11 | | % 20,74 | 1.732,06 |
| PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK | 15.000,00 | 13.925,62 | 13.722,72 | 202,90 | % 92,84 | 13.168,89 |
| LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK | 18.000,00 | 6.194,66 | 5.739,40 | 455,26 | % 34,41 | 4.708,91 |
| KOMUNIKAZIO TELEFONIKOAK, INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK | | 73,34 | 73,34 | | | |
| POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK | 9.000,00 | 1.332,84 | 1.258,41 | 74,43 | % 14,81 | 1.426,35 |
| MEZULARITZA | 1.000,00 | 91,49 | 91,49 | | % 9,15 | 156,67 |
| APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAPENA | 15.100,00 | 9.564,93 | 8.011,60 | 1.553,33 | % 63,34 | 16.538,04 |
| KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK | 327.000,00 | 266,58 | 266,58 | | % 0,08 | |
| IVAP/HAEE. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK | | | | | | |
| EJIE. LOKALEN ALOKAIRUA KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK. - EAE-KO ENTITATEAK | | 179.244,00 | 179.244,00 | | | 175.552,68 |
| EJIE. EKIPO INFORMATIKOEN ALOKAIRUA KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ENTITATEAK | | 10.648,79 | 9.843,41 | 805,38 | | 10.387,76 |
| EJIE.APLIK. INFORMATIK. MANTEN. ETA USTIAKETA. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ENTITATEAK | | 36.724,92 | 33.678,35 | 3.046,57 | | 86.816,93 |
| ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA | 19.000,00 | | | | | 21.243,64 |
| BILERAK, HITZALDIAK ETA IKASTAROAK | 15.000,00 | 3.176,01 | 3.176,01 | | % 21,17 | 971,55 |
| BESTE ZERBITZU BATZUK | 9.500,00 | 7.433,00 | 7.323,27 | 109,73 | % 78,24 | 10.491,74 |
| IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI | 9.000,00 | | | | | 2.500,00 |
| **Eragiketa arruntak guztira:** | **2.100.440,00** | **1.746.332,16** | **1.713.695,84** | **32.692,27** | **% 83,14** | **1.786.314,41** |
| ALTZARIAK | 12.000,00 | 7.076,08 | 6.364,60 | 711,48 | % 58,97 | |
| INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK | | 1.470,15 | 1.470,15 | | | |
| APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 80.000,00 | 27.738,67 | | 27.738,67 | % 34,67 | 27.676,88 |
| **Kapital eragiketak guztira:** | **92.000,00** | **36.284,90** | **7.834,75** | **28.450,15** | **% 39,44** | **27.676,88** |
| **Guztira:** | **2.192.440,00** | **1.782.617,06** | **1.721.530,59** | **61.142,42** | **% 81,31** | **1.813.991,29** |

## Diru-sarreren aurrekontua

| DESKRIBAPENA | Behin betiko aurrekontu-aurreikuspenak | Onartutako eskubideak | Diru-bilketa garbia | Betearazpenaren % | 2020an onartutako eskubideak |
|---|---|---|---|---|---|
| APARTEKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK | | 2.108,60 | 2.108,60 | | 351,45 |
| EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK | 1.802.261,00 | 1.802.261,00 | 1.802.261,00 | % 100,00 | 1.778.069,00 |
| **Eragiketa arruntak guztira** | **1.802.261,00** | **1.804.369,60** | **1.804.369,60** | **% 100,12** | **1.778.420,45** |
| EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK | 15.000,00 | 15.000,00 | 15.000,00 | % 100,00 | 14.000,00 |
| DIRUZAINTZAKO GERAKINAK | 375.179,00 | | | | |
| **Kapital eragiketak guztira** | **390.179,00** | **15.000,00** | **15.000,00** | **% 3,84** | **14.000,00** |
| Guztira: | **2.192.440,00** | **1.819.369,60** | **1.819.369,60** | **% 82,98** | **1.792.420,45** |

## Aurrekontu-emaitza

| **Kontzeptuak** | Onartutako eskubide garbiak | Onartutako obligazio garbiak | Uneko ekitaldiko aurrekontu-emaitza | 2020ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza |
|---|---|---|---|---|
| a) Eragiketa arruntak | 1.804.369,60 | 1.746.332,16 | 58.037,44 | (-7.893,96) |
| b) Kapital eragiketak | 15.000,00 | 36.284,90 | (-21.284,90) | (-13.676,88) |
| **I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA** | **1.819.369,60** | **1.782.617,06** | **36.752,54** | (-21.570,84) |
| **II. AURREKONTU-EMAITZA DOITUA** | **1.819.369,60** | **1.782.617,06** | **36.752,54** | **(-21.570,84)** |

- **Itxitako aurrekontuen likidazioa**

## Ordaindu beharreko obligazioak aurreko ekitaldietakoak

| Azalpena | Ordaindu gabeko obligazioak urtarrilaren 1ean | Egindako ordainketak |
|---|---|---|
| ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK | 21.044,74 | 21.044,74 |
| ALTZARIAK | 2.226,61 | 2.226,61 |
| PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK | 203,6 | 203,6 |
| LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK | 250 | 250 |
| POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK | 126,2 | 126,2 |
| APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAPENA | 1.479,21 | 1.479,21 |
| IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI | 2.500,00 | 2.500,00 |
| APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 13.865,60 | 13.865,60 |
| EJIE. Ekipo informatikoen alokairua. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | 1.754,11 | 1.754,11 |
| EJIE. Aplik. informatik. manten. eta ustiaketa. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak | 9.355,37 | 9.355,37 |
| **Batura guztira (Jatorriko ekitaldia: 2020).** | **52.805,44** | **52.805,44** |

- Ondare-emaitza ekonomikoaren kontua

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| **2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak** | **1.817.261,00** | **1.792.069,00** |
| a) Ekitaldikoak | 1.817.261,00 | 1.792.069,00 |
| a.2) Transferentziak | 1.817.261,00 | 1.792.069,00 |
| **A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)** | **1.817.261,00** | **1.792.069,00** |
| **8. Langile-gastuak** | **(-1.461.082,11)** | **(-1.426.492,86)** |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | (-1.188.335,51) | (-1.137.525,33) |
| b) Gizarte kargak | (-272.746,60) | (-288.967,53) |
| **9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak** | | **(-2.500,00)** |
| **11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk** | **(-285.250,05)** | **(-357.321,55)** |
| a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak | (-285.250,05) | (-357.321,55) |
| **12. Ibilgetuaren amortizazioa** | **(-26.297,91)** | **(-19.818,23)** |
| **B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)** | **(-1.772.630,07)** | **(-1.806.132,64)** |
| **I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)** | **44.630,93** | **(-14.063,64)** |
| **13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak** | **(-94,71)** | |
| b) Bajak eta besterentzeak | **(-94,71)** | |
| **14. Arruntak ez diren beste partida batzuk** | **100,00** | **351,45** |
| a) Sarrerak | 100,00 | 351,45 |
| **II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)** | **44.636,22** | **(-13.712,19)** |
| **III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)** | | |
| **IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)** | **44.636,22** | **(-13.712,19)** |

## ▪ Ibilgetua

| | Ekitaldi bukaeran metatutako balioak | | | Ekitaldi hasieran metatutako balioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gordina | Amortizazioa | Garbia | Gordina | Amortizazioa | Garbia |
| Aplikazio informatikoak | 605.055,99 | 542.722,89 | 62.332,82 | 577.317,04 | 520.773,34 | 56.543,7 |
| Bulegoko ekipoak | 18.510,68 | 8.827,36 | 9.683,32 | 24.165,01 | 16.389,87 | 7.775,1 |
| Ekipo informatikoak | 5.114,01 | 3.919,52 | 1.194,49 | 3.643,86 | 3.643,86 | |
| Instalazio teknikoak | | | | 11.633,90 | 11.633,90 | |
| Altzariak | 160.751,52 | 159.293,10 | 1.458,42 | 160.040,04 | 157.822,96 | 2.217,0 |
| Beste inbertsio batzuk | 5.005,80 | 5.005,80 | | 5.005,80 | 5.005,80 | |
| Bestelako ekipoak | 2.418,20 | 2.006,80 | 411,40 | 2.418,20 | 1.757,35 | 660,8 |
| Makineria eta tresneria | 387,80 | 387,80 | | 387,80 | 387,80 | |
| **Guztira** | **797.244,00** | **722.163,27** | **75.080,45** | **784.611,65** | **717.414,88** | **67.196,7** |